



**Jokoz kanpo**

Koronabirusaren ondorioz, ikastetxeak itxita eta kirol ekitaldiak bertan behera / 9 / 13 / 14

**Indarkeria sufritu duten emakumezkoen zuzendutako protokoloa lantzen hasiko dira** / 2-3

**Irurtzango Udalak trafikoa herri erditik kentzeko saihasbidea eskatu dio foru administrazioari** / 6

**Etxarri Aranazko Udalak ur sareko presioa konpontzeko lanak egingen ditu aurten** / 7

**Dorraok ur-araztegi berria izanen du heldu den urtean. Gaitasun handiagoa izanen du** / 6

**Aralar Txirrindulari taldeak 2020 denboraldiko aurkezpena egin zuen Aralarren** / 17

**June Kintanak Espainiako Jaurtiketa Luzeen Neguko Txapelketan urrea lortu du** / 18

**Luisillo Kalandraka musikari etxarriarrak proiektu berria aurkeztu du: La Topadora** / 22

muebles  
**ARKUPE**  
altzaria  
Sakanako koltxol-denda

Tel. 948 563 753  
Egubera, 19 - Altsasu  
www.mueblesarkupe.com

**BEHERAPENAK**

479€

1096€

Modelo  
Numea 2' matxakun kotoa  
Vozover 2' matxakun  
130x190cm





Urdiaindarrak domeka goizean herriari buelta eman zioten. FRANCIS IRIGOIEN



Sorgin-dantza dantzatu zuten uhartearrek plazan. UTZITAKOIA



Martxoaren 8ren historiaz aritu ziren Etxeberrin. PELLO GARCIA

# Protokoloa sakandartzen




Indarkeria sufritu duten emakumezkoen zuzendutako protokoloa ontzeko profesionalen aurreneko bilera asteartean egingen dute. Garagarrilerako prozesua bukatuta izatea espero dute Berdintasun Zerbitzuek

## SAKANA

Sakanako Indarkeriaren Kontra-koordinazio Protokoloa lantzen hasiko dira Sakanako eta Altsasuko Berdintasun Zerbitzuek. Indarkeria sufritu duten emakumezkoekin zuzeneko harremana duten erakundeekin elkarlanean egingen dute. Sakanako Mankomunitateko Berdintasuneko teknikari Oihana Gallo San Romanek azaldu digunez, "Nafarroan badago halako protokolo bat. Baina hori Sakanan ditugun baliabideetara egokitu nahi dugu. Baliabide horiek iden-

tifikatu, eta gero baliabide horien artean nola koordinatu beharko garen zehaztu".

Gaur egun koordinatuta lan egiten dute, baina paperean jaso nahi dute hori guztia. Altsasuko Udaleko Berdintasun teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek esan duenez, "guretako oso garrantzitsua da dokumentu batean jasotzea, finkatuta egoteko. Nahiz eta profesionalak aldatu, prozedura eteteko". Protokolo hori egiteko gizarte zerbitzuak, osasun etxeak, Foruzaingoa eta beste hainbat erakunde hots egin di-

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Beirak lehorrean jarrita
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			





Bakaikun emakumezkoek talde argazkia egin zuten M8ko bazkariaren aurretik. UTZITAKOIA



Lakuntzan auzatea eta brindisa izan ziren igandean. UTZITAKOIA



Lizarragabengoako emakumeak kontzentratu ondoren gosaltzera joan ziren. TERESA GOIKOETXEA



Igandean pelikula bat ikusi ondoren emakumezkoen afaria izan zen elkartean. UTZITAKOIAK

tuzte. Goikoetxeak argitu digu helburua: "gero eta erantzun koordinatuagoa eta integrala ematea. Eta, aldi berean, emakumezkoendako erraza izan den erantzuna ematea".

Biek elkarrekin egiten duten beste lanetako bat da protokoloa. Indarkeria matxistari aurre egiteko Estatuko itunaren baitan egiten den ekimena da. Sakanako udal guztien diru-ekarpenarekin egiten da protokolo hori. Joan den urtean aurre-lanketa egin zuten, profesionalekin eta hautetsiekin lan-saio bana egin zuten. Jarain.app aplikazioa martxan jarri zuten. Goikoetxeak elkarlanaren "arrakasta" nabarmendu du: "udal bakoitzak diru kopuru bat jasotzen du. Nahiko kopuru txikia da. Lortzen dugu dena batu eta ekintza handiak eta programa zabala egitea. Hori garrantzitsua da". Gallok gaine-

ratu duenez, "denok elkartuta horretarako aukera ematen du. Eta, gainera, eskualde ikuspegia ematen dio".

Bai Goikoetxeak bai Gallok azaldu digutenez, sentsibilizazioa, prebentzioa-eta lantzen dituzten protokoloak ere badaude. Horiek aurrerago landuko dituztela jakinarazi digute teknikariek.

#### Ibarreko berdintasun plana

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua Errotik, Sakana parekidea; Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana lantzen

### "EMAKUMEENDAKO ERRAZA IZANEN DEN ERANTZUN INTEGRALA EMATEA DA HELBURUA"

ari da. Planaren behin-behineko plangintza asteartean, 19:00etan aurkeztuko dute ibarreko erakundearen Sakanako egoitzan.

Planak lau arlo ditu: administrazioaren toki-gobernamendua eta genero zeharkakotasuna, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak lortu nahi dituen (detekzioa eta arreta nola landu eta koordinatu, prebentzioa, kanpainak...), bizitzaren jasangarritasuna (zaintzaren etika garatuz eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasunez) eta, azkenik, emakumezkoen ahalduntzea bulkatzea (parte hartze sozio-politiko eta balioen eraldaketa sustatuz).

Plana egiteko lana lastailean egiten hasi ziren. Sakanako Mankomunitatearen Berdintasun Batzordea sortu ondoren hiru hilabetez lanketa egin zuten eta handik planaren hezurdura ate-

## Manifestazioak

Sakanako mugimendu feministak Altsasun komunitate feministak konprometitua erakitzeke deia egin zuen: "kaleetan eta talde, kolektibo eta asanbladetako antolakuntza feministaren bidez presioa egiten jarraitu behar dugu". Emakumezkoak antolatuta egin nahi baitiote aurre "pertsona gehienendako bizi-gaitza den jendarte honi, batez ere emakumezko eta genero disidenteondako, eta jasanezina planetarendako".

Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbladak gaztigatu zuten, "emakume langilearen askapena guztion ardura da". Irurtzongo manifestazioaren akaberan "emakumezko zapalduen askapenaren bidean antolakuntza eta borroka aukera bakarra" direla nabarmendu zuten.

ra zen. Oinarri horrekin antolatu ziren otsaileko parte-hartze saioak. Zirriborroa da asteartean aurkeztuko dena. Berdintasun Batzordeak eta Berdintasun arduradun eta adituek martxoan aztertuko dute. Eta sakandarrek

www.sakana-mank.eus web orriaren bidez inkesta bete eta ekarpenak egiteko aukera izan den dute. Gainera, jendaurreko bi aurkezpen aurrekusi dituzte. Azken ekarpenekin, apirilera plana aurkeztea espero dute.





Irurtzunen manifestazioa egin zuten igandean. IAGA



Altsasuk ere manifestazioa hartu zuen.



"Erradikalak ginen" bertso bakarrizketa ikusteko aretoa bete zen Arbizun. UTZITAKOIA



Bazkariaren eta kantaldiaren ondoren kontzentrazioa egin zen Olaztin. UTZITAKOIA



Plazan kontzentrazioa egin zuten etxarriarrek. Txoko-lila ere egon zen. MARIA



Lizarragako emakumezkoen topaketak egun osoko egitaraua izan zuen. UTZITAKOIA

## OSTIRALA 13

18:30 *Influen[zer]?* 2 tailerra. Publizitatea eta edertasun ereduak. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udala.  
19:00 *Harremanen inguruan hausnartzen* tailerra. Irurtzongo kultur etxean. Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanblada.  
22:30 Tdiferentzia taldearen *Perdiendo el juicio* antzezlan, Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.

Antzezlan musika-tragikomedia originala eta garaikidea da, non sexu gehiegikeria eta borxaketengatik egindako kondena eta epaiketan inguruko gogoea egiten den. Genero ikuspegia legetan, prestakuntzaren beharra, epaile mabxistak, aurreiritziz betetako galdeketa, biktimaren birbiktimizazioa, gizar-te-epai paraleloak, patriarkatua, hipokresia. Muntaiak konprometitua gogoea bilatzen du, horregatik, eslogan eta esaldi eginetatik ihes egiten du obra muntai oportunitate bihurtu ez dadin. Tdiferentzia taldearen azken apustua da bere borroka feminista berezia, umorea, musika, maitasuna, kabareta eta publikoarekiko topaketak tresna gisa erabiliz.

## IGANDEA 15

12:00 Sakanako VII. Lilasterketa, Altsasuko Foru plazan. Altsasuko Udalak eta Mank-ek antolatuta.  
17:00 *Meri, Mari eta Lari* antzezlan Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.

Galder Perezek idatzitako eta Maria Urzelai aktorearekin batera sortutako antzezlan da. Azken horrek eta Yogurinha Borovak jokatzeko dituzte Meri eta Mari-ren rola. Antzezlan ipuinez eta Yogurinha Borovaren abestiez osatutako obra da, askatasunaz hitz egiten duena. Izan ere, istorioak sexu eta genero aniztasunaz hitz egiten du, familia eredu desberdinez eta beldurrak bazterteaz.

## ASTELEHENA 16

19:00 *Nik sinesten dizut* liburuaren aurkezpena Samara Velte egilearekin. Altsasuko lortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 17

19:00 Errotik, Sakana parekidea; Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren aurkezpena. Mank-en Lakuntzako egoitzan.

## OSTEGUNA 26

17:30-19:30 *Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz* tailerra. Hiriberriko kontzeju etxean.

## LARUNBATA 28

10:00-14:00 *Autodefentsa feminista* tailerra. Sutegin. 16 urtetik gorako emakumezkoek zuzenduta. Gubxienez 8 parte-hartzaile behar dira, gehienez 20. Izen ematea

martxoaren 20ra arte, udaletxean edo olazti@olazti.com e-postara idatziz. Olatzagutiko Udala.

18:00 Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen *Birritan borxatua* antzezlan, Ihabarren. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua.

Beldurrak gaudituz, salaketa jartzea erabakitzen du. Epaiketan zehar bizi eta sufritutakoak kontatuko dizkigu, baita gizartearen partetik jasotako epaia ere. Fikziozko antzezlan honek, errealitatean gertatutako hainbat borxaketetan du oinarria.

## APIRILAK 2

17:30-19:30 *Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz* tailerra. Hiriberriko kontzeju etxean.

## APIRILAK 22

17:30-19:30 *Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz* tailerra. Emakume gazteak. Izen ematea apirilaren 8 baino lehen egin behar da berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan.

## APIRILAK 29

17:30-19:30 *Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz* tailerra. Emakume gazteak. Izen ematea apirilaren 8 baino lehen egin behar da berdintasuna@sakana-mank.





ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Kalifornia, Erdi Aroko estatu ankerra

Kaliforniatik barna. Aniztasunaren eta kontrasteen herrialdea. Eremu zabal mugagabeak eguzki dirzdiratsuzak urreztatuak. Belardi, barazki eta fruitu alorren landa amaigabeak. Goi teknologiaren eta ekonomia indartsuaren estatua. Nonahi euskaldunen arrastoa, Sutter, Woodland, Vacaville, Los Banos, Fresno, Bakersfield, Paso Robles, eta molde horretako izenak dituzten hirietan, anglosaxoi eta mexikar izendapenak txandakatuta. Jatorrizkoak, hirugarren belaunaldikoak, hirurogeitik gorakoak ia denak, azken hamarkadetan euskaldun gutxi kitzikatu baitu Ameriketako aberastasunak. Hortaz, garai batean etorritakoak, lana gogotik eginda, ekimenez, bizitzan aurrera ateratzen jakin izan duten gizon-emakumeak. Artzaintzan eta neskametzan, lehenengo; baratze zaintzan, hotel-jatetxe jabe eta baita abeltzaintzan eta nekazaritzan ere, ondoren. Azken hauek, milaka akreetako (lau mila metro karratu pasatxo) lur-jabe. Horrela, erro sendo eta sakonak eginak dituzte euskaldunak. Hiri handitsuenetan bada euskal jatetxerik eta kultur elkarterik; baita kultur ekimen ugari ere. Noiz arte iraunen duten? ezin jakin, erreleborik ez baitago, eta, zoritxarrez, haien seme-alabek euskal atxikimena galduea dute.

Bestalde, geografia fisikoan bezalaxe, humanoan ere bada nahiko kontraste. Izan ere, munduko ekonomia indartsuenera izanda ere, bada nonahi miseria. Analisia egile adituek diotenez, klase ertaina desagertuta, alde batetik, goi teknologiari lotutako aberaskumeen klasea, eta, bestetik, langile txiro eta etxegabeak nagusitu dira. Horrela, paisaiaren irudia bihurtu dira, edo goi teknologietako kargudun bat kafea hartzen Starbuck baten atarian ondoan etxegabe bat lurrian botata duela, edo autoez eta karabanez osatutako bizigune txiroak, edo nonahi, noragabean azaltzen diren etxegabeak. Hemen, nagusitu diren baloreen irudia, alegia, arrakasta ala porrota. Goi teknologietako eliteen nartzisismoak eta zuhurtziagabetasunak ez du mugarik, eta zerbitzu publikoak desagerrtarazita, errukitasunezko laguntzak banatzen dituzte egoera behartsuenean daudenentzat. Horrela, XIX. mendean ere ez zegoen txirotasuna hedaturik dago Apple, Microsoft eta Facebook bezalako lurralde aberats honetan. Giza duintasuna krisian dago.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK



## Altsasuko igerilekuko lorezainak

Udalak fitxaketa berriak egin ditu neguko merkatuan lorezaintza arloan jokatzeko, ardiak. Fitxaketa hauek gainera, badute trebetasun berezirik, lorategiko belarra motz-motz eta txukun uzteaz gain, lurra nitrogenatzen doaz han-hemenka. Horrela, udaberria iristerako, lurra nitrogenoz goxatua izanen da eta lore ederrak ikusi ahal izango ditugu zelaietan. Ardiei esker, igerileku garaia iristen denean, kanpoan ere jolasteko leku zoragarria izanen dugu.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 88 26 75

GUAIXE



OBJEKTIBOTIK



Sakana 794 partide		
Martxoak 2-8		
1.	Bagañain	962,20
2.	Sapiro	802,68
3.	Anitz	804,65
4.	542576	461,65
5.	Maiasoa	462,20
6.	Godel	462,20
7.	Iaki	462,20
8.	Iare	462,20
9.	Haleza	462,20
10.	ernestelau	472,20
11.	Mola	472,20
12.	Miki	462,20
13.	Azi	462,20
14.	Makler	462,20
15.	Itzalo81	462,20
16.	Kiko Garallo	462,20
17.	Inure GZ	462,20
18.	Fabiele	462,20
19.	Cesti	462,20
20.	Sosoro	462,20
21.	Garazi	462,20

Sakana taldean parte hartzeko giltza: 2B2160

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**

GK, Ainhoa Ebeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**

Felix Alzelai Iriarte  
Garbiñe Petriati Ijurrea

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra





Saihesbidearen balizko ibilbidea. UTZITAKOIA

## Saihesbidea, Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain

Herrigunetik trafikoa kentzeko, Asterainerako errepidea Akaborro industrialdera bideratuko litzateke

### IRURTZUN

Ilbeltzaren 9a osteguna zen. Irurtzun erdian dagoen San Martin eta Lizarra kaleen bidegurutzean jarrita trafiko zenbaketa egin zuten udaleko ordezkariak. Ostegun hartan, 10:00etatik 14:00etara, 1.531 ibilgailu pasa ziren puntu hartatik. Lau ordutan bidegurutzea 111 kamioi eta autobus zeharkatu zuten. Horretaz aparte, 280 furgoneta handi zenbatu zituzten. Eta bidegurutzetik denbora tarte horretan 1.140 auto pasa ziren. Datu horien beharra zuen Irurtzuno Udalak, beste behin Nafarroako Gobernuaren atean jo eta herrigunetik trafikoa kentzeko saihasbidea egitea eskatzera baitzihon.

Aitor Larraza Carrera Irurtzuno alkateak azaldu digunez, "Herri-lan eta Azpiegitura Zuzendaritza Nagusikoekin bilera izan genuen eta Irurtzuno saihasbidea euren planifikazioan sar-

tzeko eskatu genien. Esan zigutenez, beharren arabera plan zuzendari bat, planifikazioa, egin nahi dute udaberrirako. Beraz, zain gaude".

Larrazak azaldu digunez, "Izudiagako errepidean, Lizarra eta Iturtxoko kaleen bidegurutze parean hasiko litzateke saihasbidea. Bideberria etxeen azpitik eta industrialdearen gainetik Aralar kalera aterako litzateke, Akaborro industrialde gaineko bidegurutzera. Han trafikoa behar bezala bideratzeko borobil bat egingen litzateke". Saihasbideak 450 metro luzeko kale bat litzateke.

Aldi berean, Irurtzuno Udalak Nafarroako Gobernuari jakinarazi dio Iruñerako norabidean autobiderako sarbide bat ere nahi luketela. Guztia, esan bezala, herrigunetik trafikoa kentzeko eta industrialdeak sarrera-irteera egokiak izateko.

# Dorraok araztegi berria izanen du 2021ean

Lizarragan egindakoaren antzekoa izanen da. Egungoa dagoen toki berean egingen da. Nilsa enpresa publikoak 413.000 euroko inbertsioa egingen du eta lanak emateko deialdia urte bukaeran egitea aurreikusi du

### DORRAO

Dorraoko Kontzejuak heldu den urtean ur-araztegi berria izanen du, gaitasun handiagokoa. Gaur egun, IMhoff izeneko arazketa-tanga bat du Leziza ibaiaren eskuinaldean, herritik 190 metrora. Tanke horretaraino bi isurbide iristen dira: bata ekialdetik iristen dena eta herritarren isurketa gehiena biltzen duena, eta bestea mendebaldeko muturreko hainbat etxebizitzatoko urak pilatzen dituena.

Nilsak araztegi osoagoa diseinatu du. Izan ere, 114 dorrobarrez aparte, gaztandegi bat ere bada go herrian, eta bertako hondakin-urek etxeko bestelako osagai espezifikokoak dituzte, eta, ohiko isurketekin batera, zaharkituta uzten dute egungo arazketa-sistema. Araztegi berria saneamentu kanonarekin finantzatu da osorik, Nafarroako herritarren uraren ordainagirien bidez.

Bernardo Zirizak (Lurralde Kohesio kontseilaria), Fernando Mendozak (Nilsako Azpiegitura Lokalen Nafarroako zuzendaria) Gregorio Berrozpek (Nilsako obra eta proiektuen zuzendaria), Emeterio Senar Ergoienako alkateari eta Idoia Resano Dorraoko Kontzejuko presidenteari egitasmoaren berri eman zieten atzo.



Gregorio Berrozpe, Idoia Resano, Bernardo Ziriza, Emeterio Senar eta Mendoza.

### Araztegi berriaz

Instalazio berria segundoko 0,47 litroko (eguneko 40 m<sup>3</sup>) batez besteko emaria tratatzeko diseinatu dago, eta instalazioan segundoko 3,28 litrorako arteko maximoa onartzen da. Ur-uholde gogorren, euri-jasen edo ekaitzen uneetarako aurreikuspena segundoko 1,13 litrokoa dela, etorkizuneko azpiegiturak onartzen duen gehieneko emaria baino nabarmen txikiagoa.

Araztegi berria egungo tanga dagoen lursail berean kokatuko dute, eta bigarren mailako de-

kantagailu bihurtuko dute. Instalazioa iragazki biologikoetan oinarrituta egonen da, Nilsak duela ia 30 urtetik erabiltzen duen ohiko sistema, bere eraginkortasun eta egonkortasunagatik. Uraren ibilbidea bukaerako bi hezegunetan bukatuko da. Hezegune horiek arazketa indartzeko etapa gisa jarduten dute, eta larrialdietan ura atxikitze putzu gisa ere balio dute. Dauden bi hustubideak kontserbazio-egoera onean daude, eta aldaketa txikiren batekin erabiltzen jarraituko dira. **+guaixe.eus**

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak  
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM  
**beleixe**

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN  
ERAKUSLEIHOA,  
BELEIXE IRRATIA. JARRI  
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

irratia@beleixe.eus





Etxarriarraz iturri inguruan. ARTXIBOA

# Ur sareko arazoak konpontzeko lanak aurten egingen dira

Presio arazoak saihesteko egingen dira lanak eta egun bateko ur-mozketa ekarriko du. Etxarri Aranazko Udalak aurtengo aurreikusitako inbertsioen artean daude hiltegioko zatitze-gela eta eskolako galdera aldatzea

## ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak 2.395.920 euroko aurrekontua onartu zuen otsailaren 21ean. Joan den urtean baino 197.591,52 euro gehiago. EH Bilduk aldeko botoa eman zuen eta PPK kontrakoa. Silvia Marañon Chasco alkateak azaldu digunez, "nahikoa inbertsio aurreikusi ditugu, beti dirulaguntzen menpe. Baiezkoa dugunean egingen dugu inbertsioa. Bestela, egiteko gai garen edo hurrengo urterako uztea aztertu beharko dugu".

Etxarrin ur sarean presio arazoak dituzte. Horiek konpontzeko by-passa eta erregulatuzaileak jarriko dituzte. Uraren behetorniduraren hobekuntza lanak aurten egingen ditu udalak. Marañonek azaldu duenez, "joan den urtean egitekoa zen. Lanak emanak daude. Baina burokrazia arazo batzuegatik ez zen

egin eta aurten egingen da". Marañonek azaldu duenez, "lanek hiru hilabete iraunen dute. Eragin handia izanen du. Eraikuntza enpresarekin hitz egin dugunaren arabera, dena prestatuko dute, eta egun batez ura moztuko da. Horrela, ahalik eta kalte txikiena eragin nahi dugu. Jakina, aurretik abisatuko dugu". Lanak Construcciones Noveleta enpresak egingen ditu eta horren truke 78.800 euro jasoko ditu. Lan horiei aurre egiteko foru administratibotik 54.619 euroko dirulaguntza jaso du udalak.

**"ZATITZE-GELAREKIN BERTAN HAZI, BERTAN PRESTATU ETA BERTAN SALTZEKO AUKERA IZANEN DA"**

Bai edo bai egin beharreko inbertsioen artean dago San Donato eskola publikoko galdararen aldaketa. "Gasezkoa da. Bere lana egin du, 36 urte dauka jada. Biomazako galdara jarriko dugu". Hori jartzeko kanpoan etxola bat eta erre behar den materiala gordetzeko biltegia egin beharko dira. Horrek guztiak 130.000 euro inguruko inbertsioa ekarriko du. Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza emanez gero udalak 60.000 euro jasoko litzuke.

## Zatitze-gela

Etxarri Aranazko hiltegiari zatitze-gela bat gehitzeko proiektua ere jaso dago udal aurrekontuetan. Sakanako abeltzainei eskaintzen zaien zerbitzua hobetu nahi du udalak. "Hemen hiltzen baduzu, baina zatitzeko gelarik ez baduzu, ez die mere-

zi, eta gehienak beste toki batera eramaten dute eta han hiltzen eta zatitzen dute. Hau izanen da modu bat Sakanan bertan hazi, Sakanan bertan prestatu eta Sakanan bertan saltzeko".

Sakanako Garapen Aagentziarekin (SGA) batera ari da lantzen proiektua udala. Hiltegiari zatitze-gela hori gehitzeak 325.838 euroko inbertsioa eskatuko dio udalari. Dirulaguntza eskatu du udalak eta onartuz gero 200.000 euro jaso ditzake. Bestela, udalak ez luke egingen.

Sakanako Plan Estrategikoko 2018rako lehentasunetako bat izan zen zatitze-gelarena. Baina Nafarroako Gobernuak dirulaguntza berandu eman zuen, lanak egiteko epea zeharo murriztu zen eta, lanak egitea ezinezko bihurtu zen. Gainera, dirulaguntza eskatutakoa baino diru kopuru txikiagoa izan zen.

## Bestelako inbertsioak

Lizarragabengoan abeltzaintza arloko hainbat hobekuntza lan egiteko dirulaguntza em du udalak. 51.972 euroko balioa dute lanek eta udalak 26.964,64 dirulaguntza jaso du. Argiteria publikorako 30.000 euro aurreikusiak daude. Kanpinean ere hobekuntza lanak egingen dira 16.000 euroekin: igerileku handiko ur ihesak konpontzea eta kanpoko aparkalekua handitzea. 10.000 euro beharko dira frontoiko argiteria berritzeko bigarren fasea egiteko.

Bernoako galtzada aitzaki hartuta, "Ibilbide Handi bat, GR bat, egitea lantzen ari gara, bai SGArekin bai Lur Geroa enpresarekin". Galtzada pasatzen den herri guztiak elkartu dira ekimen horretan: Etxarri Aranatz, Baikaiku, Iturmendi eta Urdiain. SGAk Europako Landa Garapenerako Programan dirulaguntza eskatu du.

## Kontra

PPko zinegotzi Manuel Leal Villadangosen beheko basotik kendutako monolitoaren gaia udal bilkurara eraman zuen. Lealen iritziz, "hura kentzeko lanak ez dituzte etxarriar guztiak pagatu behar, baizik eta oroigarria jarri zutenek". PPko zinegotziak eskatu zuen herriko hainbat paretetan dauden pintaketak kentzea".

Eta kritikatu zuen Garbiketa Ordenantza indarrean jartzeko moztua atzera bota izana. Marañonek azaldu duenez, udalak barruko dokumentu bat badu eta "hiru hilabetetik behin-edo, udal eraikinetan zer dagoen begiratzen da, saiatzeko gara, txukuntasuna mantentzen". Hala ere, "batzuetan Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzatik halako pintada borrazteko agindu bat iristen da. Behartuta gaude eta momentuan borrazten dira". Etxe partikularretan dauden pintaketen kasuan etxekoei pasatzen die abisua udalak.

**www.kattuka.com**  
eskola

Haurren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen proiektua

Mugimenduaren garapena, helduarekin harremana eta jolas librea gure ardatza

**Aurrematrikula Martxoaren 16etik 27ra**  
**Matrikula Maiatzaren 25etik 29ra**

**info@kattuka.com • 948 567 009**

# Sukaldaritza eskolak LHn

Sakana Lanbide Heziketa institutuan Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako arretarako teknikari ikasketako ikasleek sukaldaritza osasuntsuko tailerra eman diete Zelandi eskola publikoko ikasleei

**Kazetariizenxxx** GERTAERALEKUJAXXX  
Ikasi bitartean komunitateari zerbitzu bat ematea. Filosofia hori Sakana Lanbide Heziketa institutuan txertatuta dute. Ziklo guztietako ikasleek beraien ikasketak garatzen dituzten bitartean ikastetxea gainditzen duen proiekturen batean parte hartzen dute. Horrela, komunitatea euren jakintzaz baliatzen da eta ikasleak, praktikaren bidez, ezagutzak eta gaitasunak barneratzen dituzte.

Hori da ikasketa-zerbitzua. Eta hura prestatzeko urtero Sakana herri eskoletako 5. mailako ikasleek Lanbide Heziketa institutua bisitatzen dute. Haren eskaintza goitik behera ezagutzeko modua da. "Ziklo bakoitzean haien alde egin ditzakegun gauzak, edota eman ahal dizkiegun zerbitzuak alde aurretik pentsatuta izaten ditugu. Beraiei erakusten diegu. Edo proposamenak egiten dizkiegu", azaldu digu Mireia Saez Bengoetxea, Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako arretarako teknikari ikasketak zikloko irakasleak. Orduan proposatu zieten ikasleei elikadura osasuntsua proiektua garatzeko aukera.



**MIREIA SAEZ BENGOTXEA,**  
LANBIDE HEZIKETAKO  
IRAKASLEA

## Joan den urtetik, beraz...

Garagarrilean Zelandi eskolako zuzendari Amaia San Romanek hots egin zigun jakinarazteko ikasleek sukaldaritza tailerretan interesa azaldu zutela. Proiektu berria kudeatzen hasi nintzen, moduluko eduki guztiak honen bitartez landu ahal izateko. Gainera, Altsasuko Udalak dirulaguntza eskaintzen zuela jakin genuen garagarrilean. Bai ziklo honetako eta gainontzeko zikloetako proiektuetarako dirulaguntza eskatu genuen, eta onartu zigun. Gure kasuan diru hori elikagaiak eta beharrezko materialak erosteko erabili dugu: txanoak, mandarrak...

Sakanako herri eskolen koordinatzaile Lierni Galarragarekin irailan elkartu ginen, eta hark Sakanako Garapen Agentziaren (SGA) berri eman zigun, gure helburuekin bat egiten zuela ikusi zuelako. Sukaldaritza tailerren hasierako oinarria zen dieta osasuntsua izatea eta bertako produktuak erabiltzea. SGAKo elikadura teknikari Nerea Vianarekin harremanetan jarri nintzen. Beraiekin elkarlanean ari den Xalok zentroko Ana Carmen Uhar-

te nutrizionistarekin harremanetan jarri gintuzten. SGARi esker Uharteren elikadura osasuntsuaren eta bertako produktuekin egindako tailerrez disfrutatu eta ikasi dute gure ikasleek. Haiiek pagatu dituzte tailerrok. Beraien laguntza uneoro izan dugu, denboraldiko produktuak zein diren jakiteko eta hori oinarri hartuta gure menuak planteatzeko. Ondoren, Zelandi eskolako 4., 5. eta 6. mailako zortzi eta hamar ikaslerendako bi saiotako tailerrak antolatu eta garatu dituzte.

## Zelandikoendako sukaldaritza tailerrak noiz izan ziren?

Otsailaren 7an eta 28an. Emaiza, egia esan, oso arrakastatsua izan da. Baina oraindik ere lanean segitzen dugu. Kimua ikasketaz-zerbitzu proiektuen jardunaldietara eramanen dugu gure proiektua, institutuko beste batekin batera.

## Menu osasuntsuak egin dituzte. Proiektu horrek biltzen duena ez da hori bakarrik, ez?

Modulua etxerako laguntza da. Sukaldaritza ukitzen da, baina garbiketa ere oso garrantzitsua da. Garbiketarekin batera izan behar duten higien-jarrerak. Hartu beharrek segurtasun neurriak zein diren. Toxinfezioen prebentzioa. Sukaldeko arriskuak. Hori guztia barneratzen saiatu gara proiektu honen bitartez. Eskuen garbiketa ere irakatsi genien Zelandiako ikasleei. Jarrailu beharreko hamar pauso horiek.

Zikloa mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko da. Kasu honetan ez da horrela izan. Ikasleek ezaugarri eta behar desberdinak zituzten. Erritmo desberdin bat ikasteko ere. Ikasleek hori oinarri hartuta, sukaldaritza tailerreko plangintza guztia egin behar izan dute. Egokitzapenak eta egiten ere ikasi dute.



**ARGIDER, NEREA ETA XABIER**  
LANBIDE HEZIKETAKO  
IKASLEAK

## Etorkizuneko chef-ak?

N. Zikloa egiten dugunok, nutrizio tailerra bukatu genuenean, erabaki genuen Zelandi eskolan sukaldaritza tailer batzuk antolatzea. Guztion artean Etorkizuneko chef-ak izena jartzea erabaki genuen. Menuak ere guk hautatu genituen, oinarritzat hartuz ikasitako edukiak eta dieta osasuntsuaren garrantzia. Gainera, bertako produktuekin egitea erabaki genuen, horien kontsumoa sustatzeko. Osasunarendako eta prestatzeko garaian dituzten abantailak kontuan izan genituen. **Nekazari eta abeltzain horiekin harremanetan egon zarete?**

N. Viana etorri zen nutrizio tailerretarako jakiak ekartzera eta azaldu zigun nondik zetozen, etxean gaudela, etorkizunean jakiteko gauzak non erosi behar diren. Tailerren aurretik Zelandiako ikasleei menuen berri eman genien, alergia edo intoleran-

tziaren bat bazegoen, jakiteko eta neurriak hartzeko.

## Zein menu prestatu zenituzten?

A. Aurreneko menua izan zen: makarroiak barazkiekin, oilasko bularkiak plantxan azalore eta patata-xerra egosia bexamelarekin, eta postrea denboraldiko fruta irabiatua prestatu genuen. Eta dena oso ona.

## Non prestatu zenuten?

A. Institutuko sukaldean egin genuen, eta Zelandiako ikasleak gurera etorri ziren. Bigarren eguneko menua izan zen: kalabaza krema, indioilar haragibolak (egiten oso gustura egon ziren, baina nazka pixka bat ere ematen ziren) eta postrerako denboraldiko fruten burrunzia jogurtez zein txokolatez bustita.

## Zer moduzko harrera izan zuten menuek?

X. Arrakasta izan zuten. Gure ezagutzak ikasleei transmititzen saiatu ginen. Balorazio bat eman genien, bete zezaten eta, ondorioz, ikusi dugu beraiekin ikasi dutela. Gu Zelandi eskolako ikasleen ezaugarri eta beharretara egokitu gara. Errezetak beraiekin autonomiarekin prestatu ahal izateko, gu laguntzaile izan gara. Sortutako giroa oso atsegina izan da, konfiantzazkoa eta, orokorrean, oso gustura egon gara.

N. Oso gustura egon ginen. Haurrekin hasieratik izan dugun harremana oso polita izan da. Hasieran finkatu genituen rol batzuk, ikasle bakoitzak hartzeko, guk irakasteko. Baina azkenean, guztiok elkarlanean aritu ginen. Eta denon artean egin genuen, ikasleek pauso guztiak jakiteko.



**AINITZE**  
ZELANDI ESKOLAKO  
IRAKASLEA

## Nola etorri zen proiektu hau?

Ikastetxean berrikuntza proiektu bat martxan jarri da, aurreko ikasturtean hasi zena. Aurreko

kurtsoan hazitik sukaldaria izan zen. Eta honetan, berriz, barazetik sukaldaria. Zelandin ere proiektutxoak badira eta, azkenean, horrekin lotura zuzena izan du. Aurreko kurtsoan barazta sortu zuten. Aurten bertako produktuekin errezetatxo batzuk egitea izan da. Sukaldaritza tailerretarako gonbidapena zuzendaritzatik iritsi zitzaigun guri. Gureta horrelako gonbidapen bat jasotzea oso-oso aberasgarria izan zen, hasieratik. Politak. Gure ikasleendako oso aberasgarria izan zen zela pentsatu genuen. Ez genuen zalantzarik izan baiezkoa esateko.

## Nola ikusi dituzu ikasleak saltsan zeudela?

Ongi esan duzu, saltsan. Oso-oso gustura aritu dira. Beraiekin

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 480 037 Arbizu  
948 488 411 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margolzea**





**TANIA**  
ZELANDIKO IKASLEA

**Sukaldean hasi baino lehen asko ikasi behar izan duzue?**

Bai.

**Zeinek kontatu dizue nola egin behar diren gauzak, Lanbide Heziketako ikasleak edo irakasleak?**

Zintzoa izaten, biak.

**Zeinekin moldatzen zara hobekien? Ikasleekin.**

**Haragi-bolak egiten nazka pixka bat pasa zenutela esan digute. Hala da?**

Bai. Egiten hasi ginen uste genuelako egiten errazak zirela. Baina haragia eta arrautza nahastea bai, nazka pixka bat.

**Zein da gehien gustatu zaizuen menua?**

Guri gustatu zitzaizun kalabaza krema, indioilar haragi-bolak eta denboraldiko fruta-burruntziak.

**Azken horiek zein fruta zuten?**

Marrubia, laranja, kiwia eta sarra.

**Ikasitakoa etxean egin duzue?**

Ez, etxean ez didate sukaldean gauzak prestatzen uzten.

ere gelatik ateratze hori eta beste testuinguru batean gotea aberasgarria delako, guztiendako. Beraien burua beste egoera batzuetan ikustea ere ona, polita delako. Beraiek bere buruarekin harritu dira, zenbateraino gai izan diren aurrean zuten hori prestatzeko. Laguntza hori izatea. Oso pozik egon dira. Guk hori ikusi izan dugu. Batez ere azpimarratuko nuke Lanbide Heziketako gazteekin izan duten harremana, oso polita izan dute.

**Eta irakasleak, zer?**

Ez irakasleak bakarrik. Irakasleak ere pixka bat harrituta gelditu gara; higiene eta garbitasunari lotuta, eskuak garbitzeko bakarrik, zer nolako pausoak jarraitu behar diren. Hori ez genekien. Eta gauza berriak ikasi ditugu.

# Koronabirusa eguneroko hitza bihurtu zaigu

Osasun-aholkurako telefonoa 948 290 290 da. 112 telefonora soilik hots egin behar dute gaitzaren sintomak dituztenek, eta arrisku-eremu batetik etorri bada edo azken 14 egunetan kasu positibo batekin harreman estua izan dutenek

SAKANA

"Gurekin gelditzeko etorri da COVID-19 koronabirusa. Orain gutxi dago. Bi hilabetera gaixo kopurua hazi egingen da eta urte bat barru harekin kontaktuan izanen gara % 60-70. Harekin elkarbizi beharko dugu". Etxarri Aranazko mediku baten azalpenak dira goikoak. Koronabirusak koadro larriak defentsa gutxi duten pertsonetan sortzen dituela gaineratu du. Esan digunez, agintariak hartzen dituzten neurrien helburua da denbora gutxian gaixo kopuru handiak ez izatea, gorakadarik ez izatea, ospitaleak ez kolapsatzeko. Irurtzango osasun etxean esan digutenez, "jendea kezkatuta dabil eta argibide eske hots egiten du".

Osasun arduradunek prebentzioa sustatzeko hainbat aholku zabaldu dituzte. Norberak bete beharrekoak dira batzuk, erakundeak bete beharrekoak besteak. Horietako bat da Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoa. Bere ospitale-gunean dauden gaixoei bisitan pertsona bakarra eta beti bera joan daiteke. Gainera, ospitale gunera bisitan joandakoen erregistroa egiten dute. Prebentzio neurri gisa, klinikaren atean eskuak garbitzeko gelhidroalkoholikoa jarri dute.



Olaztiarrak kalean hizketan. ARTXIBOA

Aita Barandiaran adinduen egoitzan, bestalde, prebentzio neurriak hartu zituzten pasa den astean. Egoitzara ate bakar batetik sartu eta atera daiteke. Sartzen diren pertsona guztiei (bertan bizi direnak, bisitariak, langileak, banatzaileak...) tenperatura hartzen diete, eta orduarekin batera apuntatzen dute. Gel-potoak ere jarri dituzte eskuak garbitzeko. Eta aholkatu dute taldekako bisitarik ez egitea, banakakoak baizik. "Oraindik ez da debekua, ez da mugatu". Egoitzako arduradunak uneoro

Nafarroako Gobernuarekin harremanetan daude.

**Eragin gehiago**

COVID-19 koronabirusa ekonomian ere eragina izaten ari da. Testu inguru horretan Sakanako zenbait enpresatan zein prebentzio neurri hartu aztertzen hasiak dira. Gertatu daitekeenaren suposizioak egiten ari dira hainbat enpresetan: ekoizpenerako osagairen baten faltan gelditzea, langileria gehiena gaixotzea... Halakoek lantegiak geldiaraztea ekarriko lukete.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak herrialdeko unibertsitateak, ikastetxe guztiak, haur eskolak eta haurtzaindegiak astelehentetik aurrera bi astez ixteko agindu eman zuen. Eta aholkatu zuen itxiera gaur bertan indarrean jartzea. Beraz, ikasle guztiak etxean geldituko dira.

Altsasuko auziari ere eragiten dio COVID-19 koronabirusak. Espainiako Barne Ministerioak hamasei espetxe bakartu ditu, tartean Zaballakoa. Horren ondorioz aurrenekoz asteburua kalean pasa behar zuten Jokinek eta Oihanek eskubide hori galdu dute. Baita Adurrek heldu den astebururako zuena ere. Presoak, gainera, aurrez aurreko bisitarik gabe gelditu dira. Lokutorioan egiten direnak mantenduko dituzte. Galdutako bisiten ordainetan presoek telefono dei gehiago izanen dituzte.

**Nora hots egin?**

Osasun Departamentuak gogorarazi duenez, 112 telefonora soilik hots egin behar dutela gaitzaren sintomak dituztenek eta arrisku-eremu batetik etorri direnek edo azken 14 egunetan kasu positibo batekin harreman estua izan badu. Koronabirusari buruzko zalantzak argitu nahi duenak 948 290 290 hots egin behar du.

Osasun Departamentuak baliabide horiek berregituratu eta indartu ditu. Baina telefonoen erabilerrari buruzko irizpideei kasu egitea eskatu du. Horrela, gaixoei eta zalantzak dituzten herritarrei erantzun egokia eman nahi die departamentuak. Baita beste arrazoi batzuegatiko kontsulta eta larrialdiei ere. Informazio gehiago nahi duenak [www.koronabirusa.nafarroa.eus](http://www.koronabirusa.nafarroa.eus) web gunean du.

## Sakandarrak elkarrekin Euskaraldia 2020runtz

Sakanako batzordeen koordinazio bilera egin zuten asteazkenean. Ekimenerako ildoak markatu dituzte

SAKANA

Euskaraldia-ren Sakanako herrietako batzordeen koordinazio batzarraren helburua ibarreko Euskaraldiko batzorde guztiak elkarrekin izatea, elkarren berri emateko eta Sakana maila koordina-

tzeko, eta bilerak fruituak eman ditu: herri batzordeek bere dinamika propioa izango dute, baina Sakana mailan ere elkartuko dira eta haien lehentasunak aukeratu ditzakete. Hurrengo bilera maiatzean aurreikusitako dute.

Sakana mailan landu beharreko gaiak edo entitateak elkarrekin egingo dituzte herri batzordeek.

Sakanako ia herri guztiek eman dute izena Euskaraldian: Irurtzun, Arakil, Uhartea Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Lizarragabengoa, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia. Irañetak eta Iturmendik izena emateko asmoa azaldu dute. Euskaraldiaren inguruko kezak argitzea: Sakanako Mank edo AEK.



Asteazkenean egindako bilera.



# "Beraien teilatuko energia kontsumituko dute"

**XABIER LOIARTE** GOIENER KOOPERATIBAKO BAZKIDEA ETA LANGILEA

Andra Mari ikastolak eta Goienerrek hitzarmena sinatu zuten asteartean. Ikastolaren teilatuan argindarra sortzeko eguzki plakak jarriko dituzte

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ  
**Andra Mari ikastolak eta Goienerrek erlazioa zuten aurretik?**

Andra Mari ikastola hasiera-hasieratik Goiener kooperatibako bazkide eta bazkide kontsumitzailea da. Nafaroako Ikastolen Elkartearen eta Goienerren artean sinatu zen hitzarmen horren ondorioz, Andra Mari ikastola bere energia propioa eta bere teilatua dituen balibideak aprobetxatzeko eguzki instalazio fotovoltaiko bat proiektatzeko edo, behintzat, ikertzeko aukera bideratu zen. Hitzarmen horretan haien teilatuan eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko akordioa sinatu genuen. Beraien energia kontsumituko dute, euren teilatuan sortutakoa.

**Zer nolako proiektua da?**

Gutxi gorabehera 380 metro karratu estaliko dituzte plakek. 192 plaka jartzea aurreikusten da. Instalakuntza horrek, guztira, 72 kilowatteko potentzia izanen du.



Leire Donazar (Goiener) eta Iban Azanza (Andra Mari ikastola). UTZITAKOIA

**"KONTSUMITUKO DUTEN % 60 EUREN TEILATUAN SORTUKO DA. GAINZEKOA SARERA BOTAKO DU"**

**Sortzen den argindar guztia bertan kontsumituko izanen da?**

Ikastolari bideratuko zaio kontsumitzen duen energiaren zati bat. Soberan dagoen gainontzeko energia sarera bota eta Goienerrek erabiliko du bere bazkidezta guztiari bideratzeko. Urteko egun guztiak kontuan izanda, ikastolak kontsumitzen duena baino % 47 gehiago sortuko da. Gauez argindarririk sortzen ez denez baina ikastolak kontsumoa duenez, energia instalazio honen bitartez kontsumituko duten % 60 euren teilatuan sortuko da. Gainontzeko % 40 sarera bota eta Goienerreko bazkidezari zabalduko zaio.

**Argindar fakturan aurrezpen handia izanen du?**

Hasieratik instalazioaren amortizazioa bilatuko denez, aurrezpena, zuzen-zuzenean, ez da horren handia izanen. Aurrezpenak oso interesgarriak izatea ikastolarendako.

**Noiz hasiko da argindarra ekoizten?**

Plangintza guztia prestatzen ari gara. Ikasleak daudenez, oportunitate daudenean instalakuntza egiteko ahalmena izatea da interesgarriena. Ikastolak egutegia

pasa digu eta, horren arabera, Aste Santuan edo udan egingen genuke. Instalakuntza Aste Santuan egiten hasteko aukera izateko Etxarri Aranazko Udalarekin eta materialen hornitzaileekin saiatzen ari gara.

**Horrek inbertsioa eskatzen du.**

Inbertsioa Goiener kooperatibak hartuko du bere gain, Nafarkoop sorkuntza kooperatibaren bitartez. Inbertsio horietarako ireki dugun ekarpenetarako leihoa daukagu aukera moduan. Horrek zer esan nahi du? Goienerreko bazkidezta guztiari aukera ematen diogula horrelako proiektuetan; bankuan geldirik duten diru hori, interesik eta irabazirik ematen ez duena, Goiener kooperatibara ekarri, Nafarkoop kooperatiban ezarri eta diruekarpent horren truke kooperatibak urtero % 2ko interesa eskaintzen du. Orduan, Nafarkoop kooperatibak diru hori hartzen du eta errentagarriak, bideragarriak, sozialki etikoak eta jasangarri diren proiektuetan inbertituko du. Proiektu horiek sortuko ditu eta horren truke gure energia propioa, burujabatasuna eta energia berriztagarriak sortuko ditugu.

**Zenbatean espero duzu egindako inbertsioa amortizatzea?**

Hori kalkulatzeko ez da horren erraza. Etorbizunean egin behar den kontsumoaren arabera zerbait da. Eta inork ez dakigu etorkizunean nola kontsumituko dugun, ohiturak aldatzerik izanen dugun edo ez. Nahiz eta aurretik aurreikusitako beste urteetan izandako kontsumoekin-eta, kontutuan izan behar dira instalazio horietarako bideratuta dauden dirulaguntzak. Guk egin ditugun kalkulu guztietan, eta erabakia aurrera eramateko erabili izan diren informazioak, dirulaguntzarik gabe eginak izan dira. Baina dirulaguntza horiek lortuz gero instalazioaren amortizazioa asko murriztuko delakoan gaude. Horregatik, ez gara datu bat ematera ausartzen. Baina datu bat esateagatik, 10 eta 15 urte bitartean egon daiteke, dirulaguntzarik izan gabe.

**Sakanan badugu beste ikastola bat, Iñigo Aritza. Halako asmorik baduzue han ere?**

Harremana badugu. Goienerreko bazkideak ere badira. Ez ditugu ateak ixten, hurrengoan Iñigo Aritza ikastolan egiteko aukera ikertzearena.

+www.guaixe.eus



Sinatzaera gonbidatzen. JONE AMONARRIZ

## Erreferenduma helburu duten sinadurak jasoko dituzte

Hamaika Gara ekimena abiaraziz Gure Eskuk, hainbat eragile sozialekin elkarlanean

SAKANA

Hamaika Gara ekimena aurkezterakoan Gure Eskuko kideek egitasmoaren sustatzaile diren erakundeetako ordezkariak izan dituzte aldamenean. Guztien artean Elkargunea deitutako elkarlanerako espazio berri bat sortu dute. Gaztigatu dutenez, espazio berri horrek "ateak zabalik ditu herri ekimenarekin bat egin nahi duten eragile guztiendako".

Azaldu dutenez, Hamaika Gara "sinadura bilketa masibo bat izanen da; etorkizun politikoaz eta gai guztiez erreferendum bidez erabakitzearen alde, erabakitze eskubidea arautzea helburu duena". Ekimenaren sustatzaileek nabarmendu nahi izan dute, ez dela sinadura bilketa soil bat izanen. "Aldi berean, mota guztietako ekintza eta mobilizazioak iragarri dituzte 2020ko udaberriarako". Aurreratu dutenez, maiatzaren 16an Durangon mobilizazio egun handia prestatzen ari dira. Gainera, garagarriaren 13an herrietan Hamaika Gara egunak antolatuko dituzte. Sinadura bilketa nagusiki digitala izanen da, www.hamai-kagara.eus web bidez. Herrieta-ko taldeen bidez paperean sinatzeko aukera ere laster martxan izanen da. +www.guaixe.eus

**DUELA 25 URTE... 1995-03-15**



### Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena

Altsasuko Udalaren izenean Jose Manuel Goikoetxeak eta Eusko Ikaskuntzarenean (EI) Gregorio Monrealek hitzarmena sinatu zuten martxoaren 15ean. Udala erakundearen ohorezko bazkide bihurtu zen eta urtero 250.000 euro pagatuko zituen. Trukean udalak Eiren argitalpenen bilduma osoa dohainik jasoko zituen. Bestalde, EI urtero ekitaldiak antolatuko zituen.



# berria bertso plaza

Apirilak 25, larunbata, 18:00

**ASTIGARRAGA**

Oialume Biltokian

**Sarrerak:**

**10 €** - BERRIAlagunek **8 €**

[berria.eus/berrialaguna/ekitaldiak](http://berria.eus/berrialaguna/ekitaldiak)

**Bertsolariak:**

Maialen Lujanbio

Alaia Martin

Beñat Gaztelumendi

Uxue Alberdi

Miren Artetxe

Maidar Arregi

**Gai jartzailea:**

Amaia Agirre



Antolatzailea:

**berria**

Laguntzailea:

**oia  
lu  
me**  
biltokia





Astekari multzoa. ARTXIBOA

## Guaixeko harpidedunek telefono deiak jasoko dituzte

Guaixe fundazioak eginen dituen deien helburua harpidedunen datuak eguneratzea da

SAKANA Makina bat sakandarrek jasotzen dute etxean Guaixe astekaria. Harpidedunen datuak eguneratu beharra du Guaixe fundazioak, horregatik, heldu den astetik aurrera telefonoz hots egiten hasiko da. Hurrengo egun eta asteetan eginen dira deiak.

Oraindik Guaixe etxean jasotzen ez duten sakandarrek zer egin behar duten horretarako? Urteko 50 euro ordaindu beharko dituzte. Diru ekarpen horrekin, astekaria jasotzeaz aparte, Belexe Irratiari (FM 107,3) eta www.guaixe.eus web guneari bultzada ematen ariko dira. Gainera, harpidedunek Sakanako hainbat establezimendutan abantailak ematen dizkion deskontu txartela ere eskuratuko dute. Harpidedunak, azkenik, hilero egiten diren sarien zozketan sartzen dira. Baita egiten diren zozketa berezietan ere.

Guaixe fundazioa interes sozialeko proiektu izendatua da eta Mecna zigilua du. Hala, harpidedunek Mezenasgoaren Legeko zerga-pizgarriez baliatzeko aukera dute. Hau da, urtean 50 euroko ekarpena eginda, errenta aitortpenen % 80 desgrabatzen da eta 40 euro itzultzen da. Beraz, urteko harpidetza 10 eurotan gelditzen da.



Agerraldia egin zuten ordezkariak. UTZITAKOIA

## Jantoki "osasungarriak eta jasangarriak" aldarrikatu dituzte

"Landa-eremu bizi bat" izateko, Nafarroako eskoletako jantokiak "osasungarriak eta jasangarriak" eskatu dituzte

SAKANA Nafarroako hainbat udalek, taldek eta eragilek, tartean Sakanako batzuk, eskoletako jantokiak "osasungarriak eta jasangarriak" izatea aldarrikatu dute. Nabarmendu dutenez, "landa-eremu bizi bat" izateko "ezinbestekoak" dira jantokiek elementu bi horiek betetzea.

Eskoletako jantokien oinarrian "elikagai freskoak, tokikoak, sasoiakoak eta ekologikoak" izan behar dutela esan dute Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren aurrean bildutako eragile, udal eta talde ordezkariak. Hor-

taz, elikadura "subiranotasuna" politika publikoen "erdigunean" jarri behar dela esan dute: "Eskoletako jantokietan aldaketa sakon eta erradikala elikatu beharrak bultzatuta, gizarte eta ingurumenarekiko erantzukizunez, osasun publikoaren, gure elikadura kulturarekin eta gure herri eta haranetako bizitzaren iraunkortasuna" bermatu behar dutela adierazi zuten agerraldian.

Sinatzaileen artean Sakanako Mankomunitatea, Atakondoa ikastetxea eta Arakilgo, Irurtzungo, Arbizuko eta Etxarri Aranazko udalak daude.



UTZITAKOIA

## "Gaitzak jakinduria putzuak dira"

Matilde Mendieta Goikoetxeak bere azken liburua aurkeztuko du gaur, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean: 18 selfies con las enfermedades (Circulo Rojo, 2019). Mendieta dioenez, "bigarren liburu hau zaintzaileok edozein gaixotasunetan igarotzen ditugun etapa ugari aurre egiteko dugun beharretik sortu da". +www.guaixe.eus



Sakana Harrera Haranaren manifestazioa. ARTXIBOA

## Migratzaileen kontrako gerra eteteko eskaria

Gaur, 19:00etan, Altsasuko udaletxe parean kontzentrazioa antolatu du Sakana Harrera Haranak

ALTSASU Sakana Harrera Haranak azaldu duenez, "maila ikaragarria iristen ari den katastrofe-egoera eragiten ari dira Mediterraneoaren ekialdean, Siriako gerraren gorakada dela eta. Eskualde eta munduko potentzia handiekin batera erregimen tiraniko batek siriar eta kurdu herrietan genozidioa eragitea erabaki du, eta Siriako populazioaren desplazamendu masibo bat eragin du". Sakana Harrera Haranak gazi-gatu duenez, Mediterraneo ekialdean "beste herrialde batzuetatik eta beste gatazka batzuetatik

etorritako migratzaileen poltsa erraldoiak" ere badaude.

Horregatik, Sakana Harrera Haranak Grezia eta Turkia eta Turkia eta Siria arteko mugak ixtea salatu du. Bestetik, bi herrialdeetako poliziek eta militarrek errefuxiatuekiko duten jokabide krudel eta ankerra salatu dute, "errefuxiatuen egoera helburu politikoekin erabiltzen" ari dira. Turkia eta Greziako Gobernuari, Europar Batasunari eta Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari (armen komertzioagatik) neurriak hartzen dituzten eskatu dute.



UTZITAKOIA

## Pentsio duinak aldarrikatzen

Sasoia, Nafarroako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak kontzentrazioa egin zuten Etxarri Aranatzeko astelehenean. Pentsio sistema publikoa eta duina aldarrikatu zuten. Hori bermatuko duen Gizarte Segurantzaren sistema publikoa defendatu zuten. Eta Nafarroarako eskumen horiek eskatu zituzten. Baita 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatu ere.





Nafarroako Kirol Jokoen 1. jardunaldia igandean jokatu zen Berriozarren. Igandean Etxarrin 2. jardunaldia jokatzekoa zen, baina bertan behera gelditu da.

# Koronabirusak kirola gelditu du

**KIROLDEGIA** Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirol Jolaseko txapelketa eta lehiaketa guztiak 15 egun atzeratzea erabaki du. Etxarrin igandean jokatzekoa zen Nafarroako Kirol Jokoen 2. jardunaldia eta Arbizuko Zumbathoia, bertan behera

Koronabirusak bazter guztiak aztoratu ditu. Kirola bete-betean harrapatu du gaitz honek, eta, ondorioz, kirol ekitaldi gehienak bertan behera geratuko dira, kategoria txikietatik hasita, lehen mailako edo profesional mailako kirol ekitaldietara.

## Gobernuaren erabakia

Asteazkenean Nafarroako Kirol Institutuak erabaki zuen Nafarroako Kirol Jolasak 15 egun atzeratzea. Hau da, eskola-kirol guztia bertan behera geldituko da hurrengo bi aste hauetan, printzipioz martxoaren 28 eta 29ko asteburura arte. Beraz, hurrengo 15 egunetan txikien kirol txapelketa eta ekitaldi guzti-guztiak –futbola, saskibaloia, pilota, igeriketa, taekwondo, karatea, herri kirolak... hau da, kirol guzti guztiak– bertan behera geratuko dira.

## Etxarri Aranatzeko etzi jokatzekoa zen Nafarroako Kirol Jokoen 2. jardunaldia, bertan behera

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol Institutuarekin batera antolatutako Nafarroako Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia igandean hasi ziren Berriozarren. Nafarroako 10 klubetatik sortutako taldeak ari dira bertan lehiatzen, tartean Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako taldeak. Bada, 2. jardunaldia igandean zen jokatzekoa Etxarri Aranatzeko, eta bertan behera geratu da ekitaldia.

Nafarroako Herri Kirol Federaziotik azaldu digutenez, printzipioz 15 egunerako atzeratuko da txapelketa. Hortaz, igande honetan Etxarri Aranatzeko eta martxoaren 22an Antsoainen jokatzekoak ziren jardunaldiak bertan behera geldituko dira.

Txapelketako 4. jardunaldia martxoaren 29an da jokatzekoa Altsasun. "Ez dakigu txapelketa atzeratzeko aukerarik izango dugun, normalean txapelketa Aste Santua baino lehenago jokatzen delako. Aztertuko dugu ea atzeratzeko modurik egongo den, edo aurten soilik Berriozarko lehen jardunaldia, Altsasuko laugarrena eta Igantziko apirilaren 5eko finala jokatzen diren. Dena den, ez dakigu ere zertan geratuko den hau guztia, soilik 15 egunerako atzeratuko diren kirol ekitaldiak edo luzeragorako joko duen" adierazi

**KIROL PROBA GEHIENAK ATZERATU DIRA, LILASTERKETA ETA UDABERRIKO SARIA IZAN EZIK**

du Nafarroako Herri Kirol Federazioeko arduradunak.

## Nafarroako Futbol, Saskibaloia eta Eskubaloia federazioek kategoria guztietako partidak atzeratzea erabaki dute

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirol Jolasak 15 egun atzeratzeko hartutako erabakiarekin bat egin dute Nafarroako Futbol Federazioak, Nafarroako Saskibaloia Federazioak eta Nafarroako Eskubaloia Federazioak, eta kategoria guztietako partidak 15 egun atzeratzea erabaki dute. Hortaz, ez da helduen, gazteen ez haurren inolako futbol, saskibaloia ez eskubaloia partidarik jokatuko.

## Arbizuko Zumbathoia Solidarioa, bertan behera

Iganderako IV. Arbizuko Zumbathoia Solidarioa antolatuta zegoen Arbizuko kiroldegian. Aurten txakurrek lagundutako terapiak egiten dituen Biak BAT elkartearen aldekoa zen Arbizuko Zumbathoia, eta "goiz dibertigarri, kirolari eta solidarioa" pasatzea zen asmoa. Goizeko 10:00etan txikienendako 1,2 kilometroko lasterketa zegoen antolatuta, ondoren txokolatada eta, goizeko 11:00etatik aurrera, Zumbathoia, zazpi monitorea ezberdinek gidatuta. Bukaeran zozketak aurreikusten ziren, eta sarrerengatik lortutakoa Biak Bat elkarteari ematea zen asmoa, elkarteak egiten duen lanari aitortza eman eta laguntza ema-

teko. Baina koronabirusak bertan behera utzi du ekimena.

Pena handiarekin, baina ekimena atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, gomendioei kasu egitea. Egoerak nola egingen duen aurrera ez dakite, eta ezjakintasun horretan erabakia garaitu hartu nahi izan dute. "Ez dakigu noiz egingo dugun, zurrumbilo hau guztia pasatzerakoan hartuko dugu erabakia" adierazi du Arbizuko Mayra Palop zumba monitorea.

## Osasuna Magna Xota geldirik: ligako 2. jardunaldi atzeratuta

Koronabirusa dela eta, Areta Futboleko Ligako hurrengo bi jardunaldiak atzeratzea erabaki du Espainiako Futbol Federazioak. Hortaz, ostiralean Osasuna Magna Xotak Peñiscolaren kontra jokatu beharreko partida eta martxoaren 19an Anaitasunan talde berdeak Barçaren kontra jokatu beharreko partida atzeratu egin dira. Hortaz geldirik egongo da Imanol Arregiren taldea. Horretaz gain, futboleko 1. eta 2. mailako ligako hurrengo jardunaldiak ere atzeratzea erabaki du federazioak.

## Binakako Pilota Txapelketa, atzeratuta

Aspe, Baiko pilota eta EITB-k atzo erabaki zuten Binakako Pilota Txapelketa atzeratuko dutela. Erabaki gogorra izan da, eta oraindik ez dute zehaztu txapelketak noiz izanen duen jarraipena.





Ezkurdia-Martijak eta Olaizola II.a-Urrutikoetxeak atzo aukeratu zuten materiala, erabakia jakin baino lehen. BAIKO

## Binakakoa bertan behera, momentuz

**PILOTA** EPEL-ek atzo hartu zuen Binakako Pilota Txapelketa momentuz bertan behera uzteko erabakia, osasuna bermatzea lehenengoa dela argudiatuta. EPEL-ek ez daki noiz jokatu den txapelketa

Asteburuan Binakako Pilota Txapelketako finalerdietako 2. jardunaldia jokatzeko zen. Aurreko larunbatean, Labriten, Ezkurdiak eta Martijak 22 eta 16 irabazi zieten Jakari eta Zabaleta partida gogo eta ikusgarrian, eta igandean, Bizkaian, Aimar Olaizolak eta Urrutikoetxea ordezkatu zuen Aranguren 22

eta 10 hartu zituzten mendean Laso eta Albisu. Asteburu honetan 2. jardunaldia jokatzeko zen. Larunbatean, galtzaileak lehiatzekoak ziren Labriten: Jaka eta Zabaleta Lasoren eta Albisuren kontra. Eta, igandean, Asatelenan, Ezkurdiak eta Martijak Olaizola eta Urrutikoetxea zituzten aurkari.

Koronabirusarengatik Espainiako Gobernuak hartutako erabakia aztertzeo-kirol lehiaketak ateak itxita jokatzea-asteazkenean batu egin ziren Esku Pilota Enpresen Liga (EPEL) osatzen duten Aspe eta Baiko enpresak, baina ez ziren adostasunera iritsi. Txapelketa ateak itxita jokatzea, publikorik

gabe, zen aukera bat. Baina horrek diru sarrerarik gabe utziko lituzke enpresak. Bestea, txapelketa atzeratzea, honek ekarriko lituzkeen egutegi gorabehera eta kirolarien prestakuntzaren eraginekin.

Bitartean, Jaka-Zabaletak eta Laso-Albisuk asteazkenean partidarako materiala aukeratu zuten, eta atzo berbera egin zuten Ezkurdi-Martijak eta Olaizola-Urrutik. Azkenik, atzo atzera ere bildu ziren EPEL osatzen duten enpresak, txapelketarekin zer egin behingoz erabakitzeo.

### EPEL: "Osasuna bermatzea da lehenengoa"

EPEL-ek Binakako Txapelketa atzeratzea erabaki du, baina ez du datarik zehaztu. Hau da, ez dakite noiz arte atzeratuko den Binakakoa. "Gure jaialdian parte hartzen duten pertsona guztien osasunak kezkatzen gaitu, pilotari, teknikari, langile eta ikusleen osasunak. Egun, ezin ditzakegu programatuta dauden pilota jaialdi eta txapelketak normaltasunez bermatu, eta koronabirusaren aurrean egokiena txapelketa atzeratzea iruditu zaigu. Txapelketa berme guztiekin jokatzeko baldintzak daudenean erabakiko dugu noiz jokatu den txapelketa. Erabaki honek ikusle eta pilota zaleengan sortu ditzakeen kalteengatik barkamena eskatzen dugu" dio EPEL-ek kaleratu duen oharra.

## Irurtzun Nazionaleko finalera

Igandean Euskal Herriko Kluben Arteko Nazionaleko finalerdia jokatu zuten, Zumarragan, egungo txapelduna den Irurtzunik eta Oberenak. Finalerdi paretsuago bat espero zen, baina Irurtzunik ez zion aukerarik ere eman Iruñeko taldeari. Lau eta erdiko partidaren Olaetxeak (Irurtzun) 18 eta 10 irabazi zion faborittoa zen Canabali (Oberena). Horrela, gainontzeko bi partidetarara lasaiago iritsi ziren irurtzundarrak. Buruz burukoan Julen Retegik (Irurtzun) sekulako errezitaldia eman zuen eta Aldave (Oberena) 18 eta 4 hartu zuen mendean. Eta azken partidaren, binakakoan, Ongayk eta Bergerak (Irurtzun) 22 eta 14 irabazi zieten Mata-Iruritari (Oberena). Beraz, martxoaren 28an Zumarragan jokatu den Euskal Herriko Kluben Arteko VI. Nazionaleko finalera sailkatu da Irurtzun. Bere arerioa Buruzgain eta Lemoa klubaren arteko finalerditik aterako da.

## Duintasunez esan zion agur Osasuna Magnak Kopari

**ARETO FUTBOLA** Gerora Kopa irabazi zuen Barçaren kontra 3 eta 1 galdu zuen talde irurtzundarrak

Asteburuan areto futboleko Espainiako Kopa jokatu zen Malagan. Osasuna Magna Xotak ilusio handia zuen. Jakina da taldean baja garrantzitsuak egongo direla aurten -Dani Saldisek eta Eric Martelek taldea utziko dute, eta Araçak ere talde berdea utziko duela azaldu berri du-, eta jokalariek kopa lan handia egin nahi zuten elkarrekin.

Final laurdenetan Barçarekin aritzea egokitu zitzaion Osasuna Magna Xotari. Bazekiten arerio gogorra izango zela, baina ilusioarekin ekin zioten partidari.

Horretarako, Malagara hurbildu ziren 200 zaleren inguruko babesa izan zuten berdeek. Ongi jokatu zuten Imanol Arregiren mutilek, baina 3 eta 1 galdu eta gero, Kopari agur esan behar izan zioten. Hain zuzen ere Espainiako Kopa Barçak irabazi zuen, finalean Valdepeñasi 3 eta 4 irabazi eta gero.

### Taldeari ezin diola "gehiago eskatu" dio Imanolek

Imanol Arregi entrenatzaileak pozik zegoen taldearen lanarekin. "Taldeari ezin diot gehiago eska-



Osasuna Magna Xotako jokalariek, Kopan. JESUS AGIRRE

tu. Bukaerara arte dena eman du, talde honek ez dio inoiz lehiatzeari uzten. Pena da, Kopa hau taldearendako berezia zelako, baina hau da dagoena. Orain ligako play-offetara sailkatzea, hori da hurrengo xedea" azaldu zuen

Baina koronabirusarengatik ligako hurrengo bi jardunaldiak atzeratu egin dira, talde irurtzundarrak Peñiscolaren eta Barçaren kontra jokatu beharreko partidak, eta zer gertatuko den, oraindik ez da ziurra.

## FUTBOLA Preferente eta erregional mailako partidak, atzeratuta

Preferente mailan, Lagun Arteak 3 eta 1 irabazi zion Aibaresi eta Etxarri Aranatzek 0 eta 1 galdu zuten Ilunberriren kontra. Asteburuan Ondalaren kontra aritzeko zen Etxarri, eta Ardoiren kontra neurtzeko zen Lagun Artea, baina koronabirusarengatik bertan behera gelditu da liga. Erregional mailan, gizonzkoetan Salesianoson kontra bina berdindu zuen Altsasuk eta asteburuan Beti Kozkor hartu behar zuen Altsasun. Eta emakumezkoetan, Zaramonzaren kontra 0 eta 2 galdu eta gero, Altsasuk Cortesen kontra jokatu behar zuen Dantzalekun. Koronabirusarengatik ere bertan behera gelditu dira partidak.





Idolia Goikoetxea eta Oihana Gallo berdintasun teknikariak.

# "Lilasterketan kaleak morez jantzi nahi ditugu"

**IDOIA GOIKOETXEA ETA OIHANA GALLO BERDINTASUN TEKNIKARIAK**

**ATLETISMOA** Azken orduko aldaketarik egon ezean, igandean, 12:00etan, VII. Lilasterketa izanen da Altsasuko Iortia zabalgunean, emakumezkoen lasterketa ez lehiakorra

**E. Carreño eta M. Betelu SAKANAKO** Azken orduko aldaketarik ez badago, igandean VII. Lilasterketa izanen da Altsasun, emakumezkoen eta nesken lasterketa ez lehiakorra. Orain arte Altsasuko Berdintasun Zerbitzuak antolatzen zuen, baina aurten joan den urtean sortutako Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuarekin elkarlanean

antolatuko da proba. Eta, bestetik, aurten Iortia zabalgunea izanen da probaren bihotza. Idolia Goikoetxea eta Oihana Gallo teknikariek eman dituzte azalpenak.

**Aurten, jada, Lilasterketaren zazpigarren edizioa izanen da.**

**Idoia:** Bai, aurtengoa 7. Lilasterketa da; honek jada badauka bere historia. Aurten Sakanako

emakume guztiei egin nahi dio gu deialdia. Orain arte Altsasun garatu da beti, nahiz eta Sakanan barna kartelak jarri. Baina aurten esfortzu bat egin dugu Lilasterketa Sakanako herri guztietara ailegatzeko eta bertan Sakanako emakume guztiek parte hartzeko.

**Altsasuko Berdintasun Zerbitzuak urte asko daramatza lanean eta**

**aurreko urtean Mankomunitateko berdintasun teknikaria hasi zen lanean. Egunerokoan elkarlanean aritzea egokituko zaizue eta horrela antolatuko duzue Lilasterketa.**

**Oihana:** Sakanako Berdintasun Zerbitzua martxan jarri zenetik bi zerbitzuen artean elkarlana egon da eta honetan ere iruditzen zitzaigun Sakana mailako ikuspegi hori ematea positiboa izango zela eta horregatik erabaki genuen Lilasterketa bi zerbitzuen artean antolatzea.

**Lilasterketak duen berezitasun bat da, korrika aritzeaz gain, ibilbidea beste modu batzuetan egin daitekeela.**

**Idoia:** Lilasterketa ez lehiakorra da. Helburua ez da hainbeste emakumezkoen lasterketa bat egitea, baizik eta ikusaraztea nola emakumeok gizarteko arlo guztietan parte hartzen dugun. Lilasterketan, emakumeek korrika egin nahi badute, egin dezatela; bizikletan egin nahi dutela, ba oso ongi; edo oinez, patinez, gurpildun aulkian, haurren aulkitxoan... nahi duten moduan. Garrantzitsua da kale moreak lortzea, Altsasuko kaleak morez margotzea.

**Bertan aritzeko adin mugarik ez dago.**

**Oihana:** Idoiak esan duen bezala, lehiatu egin edo korrika egin nahi dutenek ibilbideari bi buelta emateko aukera izango dute, baina helburua da festa giroan, emakumeek kaleak hartzea eta kale more horiek ikusaraztea. Adin kontua ere libre da. Lilasterketa nahi bezala egin ahal denez, ez dago adin mugarik. Horrela, adin aniztasuna ikusteko aukera izango dugu Altsasuko kaleetan.

**Antolatzen diren proba eta lasterketetan emakumearen presentzia geroz eta handiagoa da. Presentzia**

**hori areagotuz doa gazteen artean ere, ezta?**

**Oihana:** Nik uste dut azken urteetan gorakada handia egon dela lasterketetan emakumeen presentziari dagokionean eta presentzia hori ere ikusarazi behar dela. Esaterako, sailkapenak ematen direnean ekintza positibo hori martxan jarri behar dugu eta emakumeek egiten duten lan hori edo egiten dituzten marka horiek ikusarazi beharko ditugu.

**Eguraldiak zerikusi handia du proba hauen arrakastan. Zazpi urte hauetan denetarik tokatuko zen Lilasterketan...**

**Idoia:** Bai, iaz, esaterako, desastre hutsa izan zen. Baina igandeko eguraldi iragarpenean igande arratsaldean euria ematen dute, baina ordura arte ez. Gure proba eguerdian jokatzen denez, ez dago arazorik.

**Non da hitzordua?**

**Idoia:** Igandean, martxoaren 15ean, eguerdiko 12:00etan abiatuko da Lilasterketa, aurten Altsasuko Iortia zabalgunetik.

**Oihana:** Eta, jakina, Sakanako emakume guztiak animatu nahi ditugu bertan parte hartzera. Izena ematea doakoa da, eta egunean bertan egin daiteke, goizeko 11:30tik aurrera, baita aurretik ere Altsasuko Berdintasun Zerbitzuan (berdintasuna@altsasu.net) edo Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuan (berdintasuna@sakanamank.eus).

**"LILASTERKETA ELKARLANEAN ANTOLATUKO DUGU AURTEN, SAKANARA ZABALTZEKO"**

## **ATLETISMOA** Beunza eta Estarriaga Espainiako Kros Txapelketan

Zaragozan jokatu zen Espainiako Kros Txapelketa, igandean. Emakumezkoen 10,3 kilometroko proba Gaztela-Mantxako Irene Sanchez-Escribanok irabazi zuen (34:26) Izaskun Beunza olaztiarra 62. postuan sartu zen (39:01) eta Leire Estarriaga etxarriarra 130. postuan (44:49), bere kategorian, 23 urtez azpiko mailan, 54. postuan.

## **Sakanako Mankomunitateak kirol monitoreak behar ditu**

**KIROLDEGIA** Martxoaren 23a baino lehen aurkez daitezke eskaera eta curriculumak

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak kirol teknikariak behar ditu bere ohiko jarduerak aurrera atera ahal izateko.

Ondoko ikastaro eta prestakuntzarako monitoreak beharko lituzke Mank-ek: musikoterapia

ikastaroa (kirol egokitua), igeriketa eta soinketa ikastaroa (kirol egokitua), emakumeen atletismo eskola, aizkora eskola, triatlloi campusa, futbol campusa, errugbi campusa eta eskalada ikastaroa.

### **Lan poltsa osatu**

Sakanako Mankomunitateak egin duen deialdian interesatuta daudenek euren eskaerak edo curriculumak Enplegu Bulegoan edo Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkez ditzakete, martxoaren 23a baino lehen.

Deialdiaren oinarriak [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web gunean daude ikusgai, interesatu guztiendako. Aipatzekoa da curriculumak aurkezten dutenekin lan-poltsa osatuko duela Sakanako Mankomunitateak.



Joan den urteko errugbi campusa.



# "Sariak aurrera segitzeko motibazioa ematen digu"

**ANDRES BENGOETXEA** ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK TALDEKO KIDEA

**MENDIA** 2019ko EHko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituko ibilbide onaren saria jaso zuen Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak martxak

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Igandean Elgetako mendi martxak Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 2020ko Zirkuitua mustu zuen. Martxa bukatuta, 2019ko Zirkuituko sariak banatu zituzten, eta sari horietako bat Sakanara etorri zen; Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak 2019ko Zirkuituko ibilbide onenaren saria jaso zuen.

**Nork antolatzen ditu Zirkuituko sariak?**

Euskal Herriko Mendi Federazioa da Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitua antolatzen duena eta Zirkuituko sariak banatzen dituena. Joan den urtean, 2019an, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak eta Iratxo elkarteak antolatutako Sakanako Ibilaldiak puntuatzen zuten Zirkuituan, beste 20 ibilbiderekin batera. Denboraldia bukatuta, 2019ko abenduan, Zirkuituan parte hartu zuten klub guztiak Gasteizen bildu ziren, Euskal Herriko Mendi Federazioak deituta, eta 2019ko ibilbideen balorazioa egin zuten; analisisia egin eta gero, Zirkuitua sariak zehaztu zituzten. Eta horretaz gain, 2020ko Zirkuituko egutegia zehaztu zen. Aurten ere XIII. Hiru Mendi Zerrak eta XXXI. Sakanako Ibilaldiak Zirkuituan puntuatuko dute.

**Eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak, zehazki, zein sari jaso zuen?**

Gure klubak antolatutako Hiru Mendi Zerra ibilbideak 2019ko Zirkuituko ibilbide onenaren saria jaso zuen. Gure martxaren ibilbidea bera izan da saritu dutena: gure martxaren ibilbide mota -Urbasa, gero Altzania eta azkenik Aralar ukitzen ditu gure ibilbideak-, ibilbidea ongi markatua dagoela, antolakuntza... **Igandean jaso zenuten saria, ezta?**

Bai, aurtengo Zirkuituko lehen ibilbidean, Elgetan. Lehenik eta behin martxa egin genuen eta,



Zelaia, Morcillo, Bengoetxea eta Caro, sariarekin. ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

## "HIRU MENDI ZERRAK APIRILAREN 4AN IZANEN DA AURTEN ETA IZENA EMATEA ZABALIK DAGO"

bukaeran, sari ematea izan zen. Diploma eta 400 euroko saria jaso genuen. Txuma Morcillo, Javier Zelaia, Juanma Caro eta ni neu izan ginen, eta pozik jaso genuen saria. Egun ederra izan zen.

**Saria jasotzeak ilusioa egin dizue?**

Bai, bereziki saria jaso izanak aurrera egiteko motibatzen gaituelako. Hori da garrantzitsuena. Hiru Mendi Zerrak martxa behar bezala prestatzeko lan handia egin beharra dago. Lan asko. Beti gainean egon beharra dago, akatsak atzematen dituzu eta batzuetan kritikak sentitzen zara... baina halako sari bat jasotzeak aurrera egitera animatzen zaitu. **Martxa luzean atzean uste baino lan handiagoa dago.**

Ibilbidearen egunean 60 pertsona inguru aritzen gara lanean: mendizaleak guneetatik pasa izanaren kontrola egin behar da, ibilbidearen kontrola, hornidu-

ra guneak antolatu, guztia bildu eta garbi utzi... Eta proba baino lehen baimenak eskatu behar dira, izen-ematea kudeatu behar da, ibilbide guztia markatu, hornidura gunerako beharrekoeak erosi, opariak prestatu... eta ikusten ez den lan pilo bat. Ibilbide luze bat ez da hiru ordutan despeditzen den ekitaldia. Goizeko 7:00etan jaurtitzen dugu hasierako txupinazoa eta 19:00etan oraindik mendizaleak helmugara iristen ari dira. Eta partaide asko izaten dira; 700 mendizale aritzera iritsi gara.

**Aurtengo Hiru Mendi Zerrak noiz izanen da?**

Apirilaren 4an, eta 14. edizioa izanen da. Dagoeneko izena ematea zabalik dago ([www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com)) eta jendea hasi da animatzen. **Saria jaso izana nabarrituko da, ezta? Prestigio gehiago emango dio zuen probari.**

Halako gauzek beti laguntzen dute, eta onerako bada, ongi etorria izan dadila.

**Hortaz, martxa antolatzen buru belarri ariko zarete.**

Bai, taldeka egiten dugu lan. Kontrolen taldea lanean ari da, hornidurena ere, eta baita beste guztiak ere. Martxa baino 15 egun

lehenago hasten gara ibilbidea markatzen eta guztia prestatzen. **Ibilbidea betikoa izango da, ez?**

Bai. Lehen Altsasuko Mendigoizaleak antolatzen genuen Altsasuko Perimetroaren ibilbidean oinarritutakoa da. Altsasuri buelta ematen genion menditik, 35 km inguruko ibilbidea zen. Baina Zirkuituan sartu ginenean ibilbidea luzatu egin behar izan genuen, martxa luzeak 40 km-tik gora izan behar dituztelako. Eta horrela sortu genuen Hiru Mendi Zerrak, Perimetroko ibilbidea handituz (48 km, 2.700 m desnibel metatua). Martxa handiaren estimazioa 11 ordutik gorakoa da. Horretaz gain, ibilbide laburragoa egiten dugu, horren luzea egin nahi ez dutenendako, gutxi gorabehera 7-8 ordukoa, baina Zirkuiturako puntuatzen duena ohiko ibilbidea da, luzea.

**Hiru Mendi Zerretatik pasatzen da.**

Bai: Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar. Altsasutik Urdiainera jotzen dute mendizaleek, Portuazpitik Urbasa-Andiara igotzeko. Aipatu parke naturala zeharkatuz, Bargagaingo gurutzera heltzen dira. Portutik barna, Gainsolera helduta, Ziordia herriraino jaisten dira. Ibilbide motza aukeratzen dutenak partzelarietatik Altsasura ailegatzen dira, eta, aldiz, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipular igotzen dute, gero Orobeko antzinarako harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarreta jaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxusburu igotzen dituzte. Handik jaisten dira, Sarabetik, eta San Pedrotik eta Basoititik barna Altsasuko Gure Etxera heltzen dira. Ibilbide luze eta gorabeheratsua da, eta ongi kontrolatu behar da, mendizalaren bat despistatzen bada adi egon, ez baita zirkuitu itxia.

**Lehen Gure Etxea zen irteera eta helmuga, eta orain, aldiz, frontoia.**

Joan den urtean Gure Etxea okupatuta zegoen eta frontoian egin behar izan genuen irteera eta helmuga. Konturatu ginen askoz hobe zela, eta mantenduko dugu. **Zuena 2019ko Zirkuituko ibilbide onena izan zela behar bezala ospatu zenuten?**

Gustura egon ginen Elgetan, egun bikaina pasa genuen, eta pozik etorri ginen Altsasura. Gorakadarekin. Normalean ez gara zorionak ematekoak, bakkrik kritikak edo gaizki egindakoak aipatzen dira, eta, begira, sari bat jaso dugu, beraz, ez dugu horren gaizki egiten ezta?

## Sakandarrek ongi ekin diote Nafarroako Kirol Jokoei

**HERRI KIROLAK** Iñigo Aritza eta Andra Mari taldeak Barañainen ongi aritu ziren, sokatiran bereziki

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen lehendabiziko jardunaldia jokatu zen Berriozarren. Nafarroako 10 klubetatik sortutako taldeak lehiatu ziren herri kirol proba konbinatuetan eta sokatiran, tartean Sakanako Iñigo Aritza eta Andra Mari ikasletoletako taldeak.

Kimuen herri kirol proba konbinatuetan -koxkolak, txingak, zakua eta korrika- 20 talde lehiatu ziren. Denbora onena Araxes taldeak egin zuen (6:32). Andra Mari 6 taldea 4. postuan sailkatu zen (6:52), Andra Mari 4 taldea 5. postuan (6:53), Iñigo Aritzako Gainsol 6. postuan (6:59), Iñigo Aritzako Intxusburu 7. postuan (7:03), Iñigo Aritzako Bargagain 9. postuan (7:05), Andra Mari 7 taldea 11. postuan (7:06), Andra Mari 5 taldea 13. postuan (7:18), Andra Mari 2 taldea 16. postuan (7:28), Andra Mari 1 taldea 19. postuan (7:46) eta Andra Mari 3 taldea 20. postuan (7:53).

Haur mailako proba konbinatuetan aurreko lanei trontza gehitu zitzaion. 10 talde lehiatu ziren, eta Igantzi izan zen onena (8:54). Andra Mari 3 taldea bigarrena sailkatu zen (9:07), Andra Mari 2 taldea 7. postuan (10:36), Andra Mari 1 taldea 9. postuan (11:09) eta Iñigo Aritza 10. postuan (11:48). Eta kadeteen mailako herri kirol proba konbinatuetan Araxes izan zen finena (9:44). Andra Mari 3. sailkatu zen (10:11).

**Sokatiran sakandarrak nagusi**

Sokatiran sakandarrek agindu zuten. Haurren mailako A multzoan Iñigo Aritzak 4 tiraldiak irabazi zituen eta Andra Mari 2 taldeak 2. Haurren B multzoan Andra Mari 3 taldeak 4 tiraldi irabazi zituen eta Andra Mari 1 taldeak 3. Eta kadeteetan A multzoan Andra Mari 1 taldeak 4 tiraldiak irabazi zituen eta B multzoan Andra Mari 2 taldeak tiraldi bakarra.



# Sakana Group-Aralar, hasteko gogotsu

**TXIRRINDULARITZA** 2020ko denboraldiaren aurkezpena egin zuen Sakana Group-Aralar taldeak igandean Aralarko San Migelen. 46 gazte trebatuko dira taldean. Txirrindularitza eta taldea sustatzeko ilusioak bizirik dirauela nabarmendu zuten arduradunek

Bere izena aintzat hartuta, Aralarko San Migel santutegian egin zuen 2020ko denboraldiko aurkezpena Sakana Group-Aralar taldeak. Klubeko presidente Alfonso Tadeok egin zien ongi-etorria txirrindulari, entrenatzaile eta gurasoei. Guztiek familia ederra osatzen dute. "Helburua neska-mutikoak txirrindularitza trebatzea da, txirrindularitzarekin disfrutatu dezatela, eta, aldi berean, gurean txirrindularitza bizirik mantentzea. Txirrindularitzak asko erakusten du, baloreak, bereziki. Txirrindularitza talde bat mantentzea ez da erraza, baina ilusioak bizirik dirau" nabarmendu zuen Tadeok.



Aralar klubeko neskek talde argazkia egin zuten Javier Etxarri entrenatzailearekin.

## Babesleei esker, elitean

Aurten 46 txirrindulari trebatuko dira Lakuntzako taldean, aurreko urteko kopuru berbera. "Taldea mantentzen da, eta hori ez da gutxi. Beste kirolekin alderatuta txirrindularitza aurrera ateratzea zaila da. Baina Aralar taldeak aurrera egiten du, eta baita Burunda klubak ere. Gurea bezalako bailara batean 100 txirrindulari inguru aurrera ateratzea, hori ez duzu edonon topatzen. Baina babesle eta kolaboratzaileei esker gure taldeek aurrera egiten dute" gaineratu zuen Tadeok. Presidenteak bihotzez eskertu zuen babesleen laguntza. "Sakana Group babesle nagusiarena, bereziki, gure taldea sostengatzen duelako. Babesleei esker gaur egun txirrindularitzaren elitean gaude" nabarmendu zuen.

## Ilusioa, garrantzitsuen

Izan ere, Sakana Group-Aralar taldeak urrezko urteak daramatza. "Hiru denboraldi bikain daramatzagu. Gure txirrindulariak elitean daude; ez soilik Nafarroan, Estatu espainiarreko onenen artean daude. Une gozo hauek aprobetxatu behar ditugu,

garai okerragoak helduko baitira. Ez da erraza urtero txirrindulari onak ateratzea, gero afizionatuetara salto egiten dutenak. Baina garrantzitsuen jendeak ilusioa izatea da, gogotsu egotea" aitortu zuen. Gurasoendako ere hitz gozoak izan zituen Tadeok. "Txirrindularitza ez da jarraitzeko erraza den kirola, gurasoen inplikazioa eskatzen du, eta gure taldeko gurasoek lan bikaina egiten dute" aipatu zuen.

Aurten 5 txirrindularitza proba antolatuko ditu Aralarrek. Eskoletako hiru lasterketa-maiatzaren 30ean Lekunberrin, ekainaren 6an Etxarri eta abuztuaren 1ean Lakuntzan-, ekainaren 16an Lakuntzan jokatu den emakumezkoen lasterketa eta abuztuaren 25ean Lakuntzan jokatu den kadeteen mailakoa.

Ondokoek osatzen dute Aralar Txirrindularitza Taldeko zuzendaritza batzordea: Alfonso Tadeo presidenteak, Javier Etxarri lehendakariordeak, Mariasun Erdozia idazkariak, Laura Sainz diruzainak, eta Alberto Martinez, Edi Cerviño, Josune Zabala, Nerea Bergera eta Marixa Zabala bokalek.



## Aralar txirrindulari taldea

### Ilusioak bizirik dirau

46 neska-mutiko trebatuko dira aurten Sakana Group-Aralar taldean, aurreko urtean bezala. "Sakanan txirrindularitza bulkatzeko gogoia eta talde hau aurrera ateratzeko ilusioa bizirik dugu, eta babesleei euren ezinbesteko laguntza bihotzez eskertu nahi diegu" azaldu zuen aurkezpenean Alfonso Tadeo presidenteak. Denboraldi oparoa dute aurretik. "Kadeteetan eta jubeniletan gure txirrindulariak elitean daude, baina garrantzitsuen jendeak ilusioa izatea da" nabarmendu zuen.



**Eskolak (28):** Promesak (3): Lander Gorriti, Ekaitz Paularena eta Peio Otxagabia. Entrenatzaileak: Ibon Paularena eta Txomin Huarte. Hasiberriak (4): Xabier Gorriti, Nagore Azanza, Iñaki Ayucar eta Maddi Martinez. Entrenatzaileak: Iban Verdugo eta Xabier Etxeberria. Kimuak (11): Janitz Zufuurre, Manex Huarte, Luca Martinez, Aimar Azanza, Ekain Navarro, Lier Verdugo, Iker Martinez, Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Urko Oiarbide eta Ion Unai Gonzalez. Entrenatzaileak: Egoi Martinez eta Juan Bautista. Haurrak (10): Aritz São Roque, Bakarne Arregi, Eñaut Oiarbide, Leire Urtaşun, Gabriel Irurtia, Ion Lizarraga, Alain Rosado, Ibai Arana, Oihan Gorriti eta Ane Berastegi. Entrenatzaileak: Alberto Martinez eta Iban Gonzalez.

**Kadeteak (8):** Alex Lopetegi, Aimar Tadeo, Manex Zufuurre, Achraf Sbai, Aritz Oiarbide, Anartz Garcia de Albeniz, Xabier Ilegi eta Adrian Martinez. Entrenatzaileak: Alfonso Tadeo eta Miguel Ocaña.

**Juniorrak (10):** Aitor Alberdi, Mikel Olaetxea, Igor Arrieta, Mikel Lizasoain, Sendoa Jauregi, Unax Miranda, Ur Mercero, Jon Erdozia, Martzel Etxeberria eta Aitor Ondarra. Entrenatzaileak: Edi Cerviño.



KOLABORATZAILEAK: SAPREM – TALLERES JUGA – MECANIZADOS IRURZUN – CONSTRUCCIONES LEGARBE – ARRIBICI – FLORISTERIA LOREA – DYA – LAKUNTZAKO UDALA – ARBIZUKO UDALA – ETXARRI ARANAZKO UDALA – IRURTZUNGO UDALA – UHARTE ARAKILGO UDALA – SAKANAKO MANKOMUNITATEA – BORDA ERRETEGIA – XALOK – ROTUGRAFIK – FUTSAL – ARALAR FERRETERIA – TRANSARREGUI – SUTЕК – MONTAJES ELÉCTRICOS ERENTXUN





ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

## Urrea June Kintanarendako

**DISKO JAURTIKETA** Asteburuan Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa jokatu zen Motrilen. June Kintana bakaikuarrak urrezko domina lortu zuen (52,10 m) Andrea Alarcon bigarrenari 3 m pasa ateraz (48,90 m). June martxoaren 21ean eta 22an Europako Jaurtiketen Kopan aritzekoa zen, Portugalen, baina koronabirusarengatik proba atzeratzea erabaki dute.



SAKANA TRIATLOI TALDEA

## Maiza, Europako txapeldunordea

**DUATLOIA** Asteburuan Europako Duatloi Txapelketa jokatu zen Punta Umbrian (Huelva). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarra sprint distantzian aritu zen, eta bere adin tartean, 55 eta 59 urte arteko sailkapenean, bigarrena sailkatu zen (1:00:33), Antonio Fernando Horta (59:43) portugaldarraren atzetik, proba ikusgarria egin eta gero.

# Altsasu, txirrindulari juniorren bilgune

**TXIRRINDULARITZA** Azken orduko aldaketarik ez badago, Burunda txirrindularitza taldeak antolatutako juniorren XXXV. Udaberri Trofeoa jokatu da igandean Altsasun. Goizeko 10:30ean abiatuko den proba

Duela aste pare bat hasi zen Nafarroako juniorren mailako denboraldia, Villatuertan, eta igandean, azken orduko aldaketarik ez badago, Nafarroako juniorren denboraldiko bigarren lasterketa jokatu da, Altsasun, Burunda txirrindularitza taldeak antolatutako XXXV. Udaberri Trofeoa, hain zuzen ere. Horrela, junior mailako txirrindulari onenak ikusteko aukera izango da, tartean Quesos Albeniz-Burunda taldekoak eta Sakana Group-Aralar taldekoak.

### Altamira hirutan

Lasterketa igandean goizeko 10:30ean abiatuko da, Altsasuko udaletxe paretik (80 km). Hasieran Ziordiraino heldu, buelta hartu eta Etxarri Aranatzera ailegatuko dira, han 180 grado egin eta zuzenean Ziordira jotzeko. Ziordian buelta hartu, Olaztin sartu eta Altamira igoko dute. Altsasuraino jaitsi eta Iturmendiraino iritsiko dira. Segidan beste bi aldiz igoko dute Altamira, helmugara jotzeko.

Aurreko urtean eguraldi kaxkarrarekin jokatu zen Udaberri Trofeoa eta Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrietak irabazi zuen, bere taldekide Aitor Alberdiri 25 segundo aterata. Aurten ere ongi ekin dio denboraldiari Arrietak, Villatuertan garaipena lortu, eta Altsasun ere gorenean egon nahiko du. Baina gainontzeko sakandarrek ere asmo hori bera dute eta lasterketa lehiatua espero da.

### Unai Aznar bigarren eta mendiko txapeldun Egian

Igandean LXVII. Egia-Zumy Saria jokatu zen Donostian (84,2 km), juniorren mailako proba. Lasterketa gorabeheratsuan Buruntzapzi taldeko Haimar Etxeberriak lortu zuen gailentzea (2:03:57) eta Quesos Albeniz-Burunda taldeko Unai Aznar bigarrena sartu zen, segundo batera.



Igor Arrieta, aurreko urteko Udaberriko Sariko helmugan, garaile.

## TXIRRINDULARI SAKANDARRAK DIRA UDABERRI SARIA IRABAZTEKO FAVORITOAK

Bere taldekide Hugo Aznar 10. postuan sartu zen, Sergio Lopez 14. postuan, Iker Mintegi 44. postuan eta Jon Chamorro 70. postuan. Unai Aznarrek mendiko sailkapena irabazi zuen eta Quesos Albeniz hirugarren talderik onena izan zen.

### Afizionatuak: Josu Etxeberria 10. postuan Urretxun

Larunbatean Urretxuko Goierriko Itzulia jokatu zen, Lehendakari Txapelketarako 2. proba baliagarria. Baque taldeko Jon Barrenetxeak bere bigarren garaipena lortu zuen, hamalaukoite baten arteko esprintean gailendu eta gero. Rural Kutxa talde sakandarreko Josu Etxeberria talde horretan zegoen, eta 10. postuan sailkatu zen. Ailetz Lasa (Laboral Kutxa-Euskadi) 45. postuan sartu zen eta Andoni Ocaña (Ciclismo Riojano) 58. postuan.

## Vuelta Sakanatik pasako da

Aurtengo 75. Espainiako Vueltak bi etapa egingen ditu Nafarroan eta asteartean aurkeztu zituzten, Juan Mari Guajardo speaker altsasuarra Nafarroa Arenan gidatutako kitaldian. Tartean zegoen Movistar taldeko Jose Luis Arrieta zuzendari uhartearra. Vueltako 5. etapa Iruñean hasiko da, abuztuaren 19an. Lizarraldeatik Urbasako portua igo eta gero, Olaztira jaitsiko dira txirrindulariak, Sakana zeharkatu eta Uharteko pistatik 1. mailako Aralarko San Migel santutegira igoko dira, gero Lekunberriko helmugaraino jaisteko (151 km). 2014ko Vueltako etapa bat ere San Migelen despiditu zen, eta badirudi antolatzaileen gustukoa izan zela.



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 13

**LAKUNTZA** Yogipuinak ipuin kontalaria. Maite Arreserekin. 18:00etan, Ganboikoan.

**ARBIZU** Gazte asanblada. 18:00etan, Argi Bidean.

**M8** **ALTSASU** Gazte agenda. **Martxoak 8.** **Influen(zer)? 2.** 18:00etan, Intxostiapuntan.

**M8** **IRURTZUN** **Martxoak 8.** **Emakume langilearen askapena guztion ardura jardunaldiak.** Tailerra: Harremanen inguruan hausnartzen. IAGAK antolatuta. 19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Sakana Harrera Haranak deitutako EBren eta eraso faxisten kontrako kontzentrazioa. 19:00etan, udaletxearen aurrean.

**ALTSASU** 18 selfies con las enfermedades liburuaren aurkezpena. Matilde Mendieta Goikoetxea idazlearekin. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Kontzertuak: Xuar metal Altsasu eta Guerrilla Urbana. 22:30ean, gaztetxean.

**M8** **OLAZTI** **Martxoak 8.** **Antzezlanak:** *Perdiendo el juicio.* Olaztiko Udalak antolatuta. 22:30ean, kultur etxean.

## LARUNBATA 14

**ALTSASU** Gazte agenda. Cupcake tailerra. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU** Kontzertua: *Handik eta hemendik. Egungo txistua.* Burundar txistulariak taldea. 19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 15

**IRURTZUN** Alkiza-Ernio ibilibidea eginen du Sakanako Mendizaleak taldeak. Ondoren, sagardotegia. 07:00etan, plazatik.

**ALTSASU** Barranka BTT taldea: Irumugara 43 km-tako ibilbidea. 08:00etan, Zumalakarregi plazatik.

**M8** **ALTSASU** **Martxoak 8.** **Sakanako VII. Lilasaterketa.** Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 12:00etan, Foru plazan.

## ZINEMA

## ALTSASU

## IORTIA KULTUR GUNEA

**Parasitos** gaurretasunezko filma  
Ostirala 13: 22:00  
Igandea 15: 19:30

**Solo nos queda bailar** zineforum filma  
Igandea 15: 19:40

**El Rey León** familiarreko filma  
Igandea 15: 17:00

**La candidata perfecta** zineforum filma  
Osteguna 19: 19:00

**M8** **OLAZTI** **Martxoak 8.** **Antzerkia:** *Meri, Mari eta Lari.* Olaztiko Udalak antolatuta. 17:00etan, kultur etxean.

**LAKUNTZA** Ikusi makusi. 17:30ean, kultur etxean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 16

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

**M8** **ALTSASU** **Martxoak 8.** **Nik sinisten dizut** liburuaren aurkezpena. Samara Velte idazlearekin. 19:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 17

**LAKUNTZA** **Errotik Sakana Partaideak**-ren aurkezpena. 19:00etan, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

**ALTSASU** **Jentiles. El último secreto de la mitología vasca** liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Haritza tabernan.

## ASTEAZKENA 18

**ALTSASU** Literatur solasaldia: Ana Galardon idazlearen *Gelditu* zaitzte nirekin liburu. 18:00etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU** Bideo emanaldia. 19:00etan, Argi Bidean.

## OSTEGUNA 19

**ALTSASU** Ikuskizuna: *Luces, camara, ¡Acción!* Suakai taldea. 19:00etan, lortia kultur gunean.



ARGAZKILARIA XXXX

**IRURTZUN** Irurtzungo pintura tailerraren *Estilo desberdinetatik* ibilaldi bat erakusketa. *Martxoaren 2tik 31ra. Pikuxar euskal txokoan eta Tahonan.*




TEA EN LA AZOTEA


**ALTSASU** Tea en la azotea artistaren *El sueño de una noche de verano* trapuzko panpinen erakusketa. *Martxoaren 4tik 27ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.*

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 12




Larunbata, 13



Igandea, 14



Astelehena, 15





ESKELA

## Peio Arregi Mujika

Ondo joan eta ondo ibili, lagun!



**Beti-iaten elkarteak bazkideak**  
Altsasu

ESKELA


## Peio Arregi Mujika

Altsasun hil zen 2020ko martxoaren 9an  
Altsasuko Udaleko Zinegotzia (2015-2019)



**Altsasuko udala**

ESKELA




## Edurne Alustiza Zufiaurre

"Adiskide bat bazen orotan bihotz-bera..."

Beti izango zara gure bihotzetan.

**San Donato eskolako Hezkuntza Komunitatea**

ESKELA



## Jose Luis Ruiz de Azua Salinas

2020ko martxoaren 7an hil zen, 95 urte zituela

Beti izango zara gure bihotzetan.

**Bere emaztea, semea-alabak, bilobak eta gainerako ahaideak.**  
Olazti

OROIGARRIA



## Yera Lanz Azpilikueta

II. urteurrena

"Zuk nahi bezala, egunetik egunera maitatzeko modu berri bat zara, beti gure artean zaudelako, gure bizitzan eta gure bihotzetan"

**Maite zaitugu**  
**Ixaro eta zure familia**



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

**BEILATOKIAK**

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## ERRENTAN EMAN

**Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatzen prest dugu.** Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554.

## IKASTAROAK

**Bach loreak eta autoezagutza:** Martxoak 17, 24 eta 31. Ordua 10:00 - 12:00. Antolatzen du: ASI, Arreta eta Orientazio psikologikorako Zentroa eta Estetika Gixane. Informazioa eta izena ematea 686 203 508 tfnoan.

**Enpresa kudeaketaz Cederna-Garaluz elkarteak doako bi ikastaro antolatu ditu:** "Antolatu zure paperak Ogasunarekiko betebeharrak betetzeko", martxoaren 24an eta "Nola burutu nire izapideak Ogasunarekin linean ziurtagiri digitala

erabiliz" ikastaroa da eta martxoaren 31n. Ikastaroak 09:30etik 13:30era izanen dira, Arbizuko industrialdetan dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan. Informazioarako eta izena emateko: 619 328 264 edo sakana.admon@cederna.es.

**Talde dinamikak:** Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako ikastaroa martxoaren 14an izanen da, 09:00etatik 19:00etara, Intxostia-punta gazte gunean. Plaza libreak daude. Izen ematea gazte gunean edo gazteria@altsasu.net e-postaren bidez.

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAERA

**Altsasun, asteburutan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du.**

Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

## OHARRAK

**Uharte Arakilgo 2020ko egur epaiaik:** Interesa duenak 35 euro ordaindu behar ditu udaletxean, izena ematerakoan, 2020ko martxoaren 2tik 31ra bitarte. Loten esleipena, ekainean izango da zozketa publikoaren bidez. Argibide gehiago Uharte Arakilgo udaletxean.

**Uharte Arakilgo haur eskola:** Pausoka udal haur eskolak aurrematrikula epea zabalik du martxoaren 27ra arte. Informazio gehiago nahi duenak haur eskolatik pasa edo 948 464 030 hots egin dezake. Bestela, udaletxean ere informazioa dute: 948 464 036.

**Arakilgo sagardotegi bazkaria:** Apirilaren 4an Hernaniko Itxasburu sagardotegira irteera antolatu du Arakilgo Udalak. 12:30ean abiatuko dira,

Hernanin poteatu ondoren, 14:00etan bazkaria izanen da sagardotegian. 18:30ean Hernanira jaiatsiko dira eta buelta 01:30ean egingen dute. Martxoaren 25era arte eman daiteke izena udaletxean, 948 500 101 eta 634 584 223 telefonotan, info@arakil.net edo arakilkultura@gmail.com e-postetan. Arakilen errol-datatukoak 30 euro pagatu behar dituzte eta ibarrean errol-datuta ez daudenak 38.

**Danbolintxulo haur ludoteka** Etxarri Aranazko haur ludotekako aurrematrikulazio epea martxoaren 16tik 27ra izanen da. Izen-emate orriak Danbolintxulon bertan eskuragarri daude. 8 hilabete eta 2 urte arteko umeak hartzen ditu haur ludotekak, irailtik garilera. Orduetgia familiak erabakitzen dute. 2019-2020 ikasturtean 08:00etatik 14:30etara izanen da. Danbolintxulo haur ludo-

teka gurasoek kudeatzen dute eta Etxarri Aranazko Udalak laguntzen du. Ate irekien jardunaldia gaur, ostirala, 17:00etan.

**Aisiaz Blai programa** Altsasuko Udalen Txanbaxari udal ludotekak Aisiaz Blai programa eskainiko du apirilaren 14tik 17ra, 08:30etik 13:30era. Talde hori sortuko ez balitz, 11:00etatik 13:30era arteko taldea eratuko litzateke. 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduta dago. Izen-ematea heldu den astelehenean ostirala egin daiteke 012 edo 948 012 012 doako telefonoetara hots egin edo [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) web orriaren bidez. Familia unitatearen diru-sarreraren arabera pagatuko da. Horregatik errentaren arabera hamar tarte ezarri dira. Goiz osoko ordutegiaren kasuan 3 eta 19 euro arteko matrikula ordaindu beharko dute matrikula egiten dutenek. Eta horren erdia ordutegi

murrituaren kasuan. Hoberiak eskatzeko aukera ere izanen dute Aisiaz Blai programako erabiltzaileek. Aisialdi programari buruzko informazio gehiago nahi duenak Txanbaxari udal ludotekara jo dezake, 948 467 471 telefonora hots egin edo ludoteka@altsasu.net e-postara idatziz.

**Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpeki Txartela oparitu die.** Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte mugikortasun programe tarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpeki Txartela oparitan jaso nahi duenak [www.juven-tudnavarra.es/eu/hasiera](http://www.juven-tudnavarra.es/eu/hasiera) web gunearen bidez egin dezake eskaera.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

# IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)





Burundar Txistulariak kontzerturako entseatzan.

## Egungo txistua erritmo berezian

'Handik eta hemendik. Egungo txistua' kontzertua eskainiko du Burundar Txistulariak taldeak bihar, larunbata, 19:30ean, lortia kultur gunean. Errepertorio "klasikoa, baina bakarra" eskainiko dute txistulariek

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Txistua "bertako" musika tresna "jotzeko eta afinatzeko" oso zaila dela azaldu du Juan Pablo Urizar Burundako Txistulariak taldeko kideak. Beraz, urtero kontzertu bat egiten dute erakusteko txistuak aukera asko ematen dituela. Hainbat musika trenekin oso ongi uztartzen da txistua, esaterako, "metalezko instrumentuekin oso ongi egiten du bat". Taldearen kontzertuetan, beraz, txistua ez ezik beste hainbat instrumentuk parte hartzen dute: pianoa, metalak, perkusioa, baxua eta abar. Aurten flamenko pieza bat egingo dute lehenengo aldiz Altsasun eta gitarra jole ospetsu batekin ariko dira. Handik eta hemendik. Egungo txistua kontzertua bihar, larunbata, 19:30ean, izango da Iortia kultur gunean. Kultur gunetik adierazi dutenez, "momentuz ez" dituzte emanaldiak bertan behera utziko koronabirusaren auziagatik, hala ere, "egoera aldatu" daiteke edozein momentutan.

"Glokalizazioa deitzen duten hori hona iritsi da ere". Karlos Sanchez Burundar Txistulariak taldeko kidea da, eta taldeak bihar

eskainiko duen kontzertuaren errepertorioaren abestiak moldatu ditu ere. Horrek berezitasuna ematen dio emanaldiari. Beraz, nahiz eta "txistuaren errepertorio klasikoa izan", egokitzapenak taldearendako sortuak dira. Are gehiago, haiekin beste hainbat musikarik parte hartzen dutelako. "Mokadu hartze bat da", hau da, "handik eta hemendik" hartu dute kontzertuaren errepertorioa osatzeko.

Beste erritmoekin arriskatzeari gustatzen zaio Burundar Txistulariak taldeari, eta aurtengo nobedade nagusia flamenkoa izango da. "Saiakera asko egin ditugu, baina azkenean abesti honekin ausartu gara". Hegoaldetarrak deitzen da eta Sanchezek konposatu zuen. "Serie bateko soinua banda egiteko lehiketa antolatuta zuten eta Durangoko Silboberri elkarteak egitea proposatu zidan". Abestiaren mustutze kontzertura "beldurra-ekin" joan zela aitortu du Sanchezek, baina "oso ongi" joan zela aipatu du: "Gitarristak izugarri ongi jo zuen". Kontzerturako gitarra jolea topatzea izan da "zailena".



**BAZTERRETIK**  
**RICARDO ARETA**  
**URRESTARATZU**

### Badfinger

60ko hamarkadaren amaieran The Beatlesekoentzat oso zaila zen ados jartzea. Baina gauza batean Liverpooleko 4ak bat zetozen: Badfinger zen bere talderik gogokoena, zalantzarik gabe, bere ondorengo duinak izango zirenak. Hau dela eta, Apple Records euren diskoetxerako fitxatzen dituzte, talde nagusi bezala eta haiekin hasten dira lanean.

Badfinger diskoetxearekin harreman profesionala izateaz gain, The Beatles taldeko kideen bakarkako proiektu guztietan ere agertzen dira. George Harrisonekin talde laguntzaile moduan eta Ringo Starrekin ere parte hartzen dute, baita John Lennon "Imagine" kanta arrakastatsuan ere. "Concert for Bangladesh"-eko zuzenean azaltzen dira, Harrisonekin batera. Eta Paul McCartneyk abesti bat ematen

die. "Come and Get It" kantarekin lehen arrakasta handia lortu dute eta milioi bat kopia saltzen dute, Erresuma Batuan arrakasta-zerrendetan lehen tokiak lortuz.

Ingalaterran, bitartean, Beatles berriak izenarekin bataiatzen dituzte. Bere "Without You" kanta New Yorkeko kaleetara iritsiko da eta Harry Nilssonek abestiaren bertsio bat egin eta salmenten zerrenden gorenean jartzen du. Urte asko geroago, Mariah Carey izango da berriro klasiko hau berrinterpretatu duena, eta Harry Nilssonena baino arrakasta handiagoa lortuko du.

70eko hamarkadaren hasieran taldea bere ibilbideko une garrantzitsuenetako batean zegoen. Baina arrakasta komertzialak eta The Beatlesen babesa izan arren, Badfingerren egoera finantzarioa jasanezina zen, eta, orduan, bere ordezkari Stan Polleyren eskutik, Apple Recordsekin zuen kontratua hautsi zuten, zigiluaren egoera ekonomiko txarra argudiatuz, eta Warner Brosekin milioi askoko akordio bat sinatu zuten.

Polleyk taldea presionatzen du Warnerrekin bere lehen diskoa grabatzeko, eta emaitza ez da onegia. Hala ere, bigarren lan bat grabatzen dute eta hirugarren diskoan agertzen da bere ordezkariaren iruzurra. Desagertu egin zen, diskoetxeak taldeari disko bakoitzeko ematen zizkion aurrerapenekin geratu zen. Harry Nilssonek dirutza egin zuen, "Without You" lanaren egile-eskubideak zituen. Badfingerren inguruko guztiak ugaritasunean igeri egiten zuen baina taldea zorrak itota zegoen.

1975ean, Peter Ham konpositore eta taldeko liderrak ezin zuen abokatu bat ordaindu Polleyri zegokiona erreklamatzeko, eta ezin izan zion aurre egin bere hipotekari seme txiki batekin eta beste bat jaiotzeaz zela, eta bere buruaz beste egin zuen. Inork ez zekien Polleyk bizitza aseguru bat kontratatu zuenik Peter Hamentzat, baina oraingoan ere Stan Polley bera zen polizaren onuraduna.

### Teatroa aldarrikatzeko antzerkia

Irurtzungo antzerki taldeak *Ver; oler; escuchar* antzezlanaren egina du martxoaren 19an, osteguna, 19:00etan; 20an, ostirala, 20:00etan; 21ean, larunbata, 20:00etan, eta 22an, igandean, 19:00etan, herriko kultur etxean.

Eraitsi nahi duten antzoki batean bizi diren pertsonaiak dira Irurtzungo antzerki tailerrak prestatu duen lanaren protagonistak. Antzokia ez botatzeko edozer gauza egingo dute, eta, besteak beste, ikuskizun bat antolatzen hasten dira. Beraz, Irurtzungo antzerki taldeak meta-antzerkia egingen du gaurko ikuskizunean, eszenaren bidezko omenalditxoak. Modu dibertigarri batean aldarrikapenak ere adierazi dituzte aktore irurtzundarrek.

Antzezleak: Txus Abad, M<sup>a</sup> Eugenia Barroso, Julián Cuevas, Miguel Eslava, Goio Fernández, Txeli Garcia, José Ramón Irure, Genma Matxain, Lucia Muñoz, Tere Otxoa, Andoni Ruiz, Zuriñe Serrano eta Enara Urra.



Irurtzungo antzerki taldea. UTZITAKOIA

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak  
liburuak  
jostailuak  
opariak  
eskulanak

Inprimagailuendako  
kartutxoak

948 460 477  
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz





La Topadora taldeko kideak; erdian, Luisillo Kalandraka etxarriarra. UTZITAKOIA

# "Lehenengo aldian bezain ilusionatuta gaude"

**LUISILLO KALANDRAKA MUSIKARIA**

La Topadora talde berria aurkeztu du Luisillo Kalandraka musikari etxarriarrak. Estilo asko jorratu dituzte, bi hamarkadetan lortutako esperientzia azaleratuz

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI ARANATZ Enrikko Rubiños, Ruben Anton, Javier Etxeberria eta Luisillo Kalandraka. Izen ezagunak dira, izan ere, bi hamarkada baino gehiago daramatzate oholtzaren gainean, musika talde batean izan zein bestean izan. Vendettaren etapa itxi ondoren, proiektu berri batekin abiatu dira: La Topadera. Luisillo Kalandraka etxarriarrak "rol berriak" hartu ditu talde berrian, izan ere, zenbait abestiren letrak idatzi ditu.

**Zergatik proiektu berri bat sortu?** Vendettarekin amaitzea erabaki zenean, Pellok beste gauza batzuk egitea erabaki zuenean, besteok esan genuen: zer egingo dugu? Vendetta gisa jarraituko dugu edo zerbait berria egingo dugu?

**"KONPLEXURIK GABE ETA PRESARIK GABE EGIN DUGU, DENBORA HELBURURIK GABE"**

Eta pentsatu genuen izen berdinarekin jarraitzea berdina ez ginenean ez zeukala zentzu handirik. Badirudi aurrekoa arrastatzen duzula, eta berriari balore gutxi ematen diozula. Orduan, proiektu berri bat hastea erabaki genuen. Antzeko gauzak ditu, baina zerbait berria egiteko gogoak genituen. Ez dakigu gel-dirik egoten. **Elkarrekin osatu duzue?** Enrikko bateria, Ruben tronpeta, Javiero gitarra eta ni baxu jolea. Gorka Otsoa deitutako

mutiko bat kontratatu dugu tronpeta jotzeko. Bestela, tronpeta bakarrarekin ez zen guztiz ongi gelditzen. Lauak Skalariak-etik gentozen. Ez dakigu bananduta egoten! Abesti berri bat lantzen ari garela, eta nori deitzen diogu? Enrikko, Ruben... betikoei. Hainbeste denboraz elkarrekin egon garenez, oso ongi ezagutzen dugu elkar. Desberdintasun nabariena rolak aldatu ditugula da, baina filosofia berdina da. Familia bat gara. Lehen abestiak Pellok konposatzen zituen eta orain Javiero musika konposatzen gelditu da eta nik letra batzuk sortu ditut.

**Eta zer moduz kanta-idazle gisa?**

Oso ongi. Idazteko gogo handiak nituen. Beti idatzi izan dut, baina terapia bat bezala da. Javierori esan nion idatzitakoak bidaliko nizkiola, eta bera hasi zen dena haritzen, lasa-lasai.

**Zer du berriaz eta zer berrasmateaz?**

Berria dauka itzuli garela pixka bat estilo desberdinekin jolastera. Beti jolastu izan dugu horrekin, baina Vendettaren azkenengo diskoan elektronika sartu zen eta guztia bateratzen zuen. Bazirudien dena berdina zela. Itzuli gara abesti bakoitza gauza desberdina izatera, abesti bakoitzak estilo bat izatera. Azkenean, asko aspertzen gaitu beti berdina jotzeak. Estiloekin esperimentatu dugu.

**Urte bateko proiektua izan da?**

Skalariak taldearekin bukatu genuenean, ia bukatzen, Javierorekin hainbat abesti genituen prest hurrengo proiekturako. Beraz, ate bat itxi bezain pronto bestearekin hasi ginen. Eta izan dira 10 urte Skalariak-ekin eta beste 10 urte Vendetta-rekin. Topera egun osoa. Erabaki genuen oraingoan ez zela horrela izango. Oraingoan lasaia ibiliko ginen. Bi hilabetetan lasai egon ginen, baina ezin genuen gehiago. Baina presarik gabe aritu gara.

**Zer izan da proiektua aurrera eramateko zailena?**

Egia esan ez da zaila izan. Javiero eta biok gelditu behar izan genuen pixkatxo bat. Orduan, gelditze horrek egin du dena errazagoa izatea. Ez izatea atze-

**"MUSIKAREN YONKIAK GARA, EZ DAKIGU GELDIRIK EGIN; BETI SORTZEN ARI GARA"**

tik presio hori oso ona izan da. Gauzak ongi egingo genituela pentsatu genuen. Eta horrek asko laguntzen du; bagenekien egingo genuela, baina denbora helbururik gabe. Konplexurik gabe eta presarik gabe egin dugu.

**Espektatibak?**

Jendeari gustatzea eta asko jotzea. Oinarrian hori da garrantzitsua. Kontzertu bat egin genuen aurreko ostegunean Bilboko Kafe Antzokian eta izugarria izan zen. Ez genuen espero erantzun hori. Nahiz eta ibilbide luzea izan eta jendeak jakin nondik zatozen, aldi berean zerbait berria da. Hala ere, beti daude esaten dutenak hau ez dela lehengoa edo aurrekoa gehiago gustatzen zizaiola. Beraz, ez genekien oso ongi nola joango zen. Athletic-en partidua zegoen eta hala ere aretoa bete zen. Erantzuna ezin hobea.

**Hasierako ilusioarekin jarraitzen duzue?**

Musikaren yonkiak gara. Esaterako, atera dugun singlean, Siete vidas, horri buruz hitz egiten du. Katu baten bizitzak bezala. Istorio bat bukatzen duzu, orria apurtzen duzu, eta beste batekin hasten zara. Eta hurrengo hasten da lehengoaren xarma berdinarekin. Lehenengo aldian bezain ilusionatuta gaude. Hori da aurrekoan ez oinarritzearen politena; orain arte hau izan da eta orain zerotik hasiko gara.

**Musikaren mundua asko aldatu da. Kontziente izan zarete?**

Musika entzuteko moduan aldaketa nabaria da. Duela 20 urte disko bat kaleratzen zenuenean, urte bat pasatzen zen eta bazirudien jendearen artean oraindik ez zegoela barneraturik, ez zuela guztiz entzun... asko kostatzen zen. Gaur egun sarekin izugarria da. Gaur abestia kaleratzen duzu eta egunean bertan jendeak bere etxean izan dezake. Leku askotara iritsi zaitezke.

**Zergatik La Topadora izena?**

Vendettarekin Argentinara bira bat egin genuen eta Mendozan La Skandalosa Tripulacion taldea ezagutu genuen. Irtsi ginenetik anaiekin elkartzeari bezala izan zen. Azkenean, bira bertan beharra gelditu zen eta gu aste bat haiekin egon ginen. Handik eta urte batera taldearen abeslaria, El Cebo, hil egin zen. Argi berezia zuen. Taldekideek berak konposatutako abestiak bukatu eta grabatu zituzten. Eta abesti bat egitea proposatu ziguten: La Topadora.



# Zinema eta musika elkarrekin doazelako

Suakai taldeak 'Luces, camara, ¡Acción!' ikuskizuna egingen du datorren ostegunean, martxoaren 19an, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Soinu bandak ditu ikuskizunak oinarrian, baita mundua aldatzeko mezuak ere

## ALTSASU

Musikaren mundua "profesionalizatu" nahi izan zuten Claudia Oses eta Ivan Carmona musikariek. Biolina eta biolontxelo jotzen dute, hurrenez hurren, eta Orkestra Sinfonikoetatik haratago musikari profesionalak izan nahi zuten. "Zaila zen, ero samar egon behar duzu hori egiteko". Erokeriatik abiatuta Suakai taldea sortu zuten. Hiru urte ondoren laugarren ikuskizuna mustu dute: *Luces, camaras, ¡Acción!*. Datorren ostegunean, martxoaren 19an, emanaldia egingen dute Iortia kultur gunean, 19:30ean. Filmetako soinu bandetan oinarritzen da ikuskizuna. Nafarroako Gobernuak koronabirusaren aldeko prebentzio neurri bezala 1000 ikusletik gorako hainbat ikuskizun bertan behera utzi ditu, baina, "momentuz", Suakairen ikuskizuna egingo dutela jakinarazi dute Iortia kultur gunetik. Hala ere, "egoera aldatu" daitekeela aurreikusitako dute.



Suakai taldea ikuskizunean. SUAKAI

Osesen erreferente bat Cirque du Soleil konpainia da. "Ez da antzerkia bakarrik, musikak garrantzia handia hartzen du". Zirku konpainia ezagunean bezala, zineak musikaririk gabe "ez duela zentzurik" esan du biol-

nistak: "egia esan, musikaririk gabe munduak ez luke zentzurik izango". Hortaz, Suakairen helburua da "musika ez izatea laguntzaile, hau da, musika ekoizpenaren parte izatea".

*Luces, camaras, ¡Acción!* ikuskizuna zinema eta musika uztartzeko xedearekin egin zuten. "Taldea izan zuen lehenengo ideietariko bat izan zen". Teknikoki erronka handia izan dela azaldu du Osesek. "Gure ikuskizunei buelta bat ematen saiatzen gara, musikarekin zertxobait berritzea".

Soinu bandak "bai publikoari bai guri izugarri gustatzen zaizkigu". Musika "gogoratzea eragiten dizun" arterik indartsuena dela esan du, horregatik, "soinu bandek magia berezia dute". Gainera, Suakairen leloa "musikarekin mundua aldatu daiteke", Sorpresaren bat dagoela azaldu du Osesek; "Carlos Serrano argi ingeniaria da, eta argiekin jolasten du. Oilo larrua jartzen zait".



Atarrabiako saioa, eskuinean, Saats Karasatorre kantuan. NAF. BERTSOZALE ELKARTEA

## Sakaña taldeak Bardoak txapelketari agur esan dio

Sakandarrak finalaren atarian gelditu dira, eta Atekaaberts komeni da lehenengo finalista

### SAKANA

Atarrabian jokatu zen Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketaren Sakaña eta Atekaaberts komeni taldeen finalurreko itzulera saioa. Atekaaberts komeni taldeak irabazi zuen ere Erriberan jokatu saioa, hala ere, bi taldeak gertu gelditu ziren: 23 puntu jaso zituzten leitzarrek eta 21 sakandarrek. Beraz, Atarrabiako saioa erabakigarria zen. Finalurrekoaren bigarren saioa Atekaaberts komeni irabazi zuen ere, eta, beraz, Bardoak 2020ko lehenengo finalista da. Guztira, Leitzako taldeak 54 pun-

tu jaso ditu finalurreko fasean, eta Sakañak 24 puntu jaso ditu. Atekaaberts komeni taldea aurreko Bardoak 2018ko txapelketako txapeldunak dira. Ekain Alegre, Idoia Granizo eta Saats Karasatorre aritu ziren Sakaña taldean eta Aitzol Eizmendi, Ane Intxausti, Joanes Illarregi eta Xabat Illarregi izan ziren Leitzako taldearen ordezkariak.

Aurreko asteburuan jokatuako beste saioan, Tafallan, Barañaingo Hego Haizea eta Berako Lamixene taldeak izan ziren kantuan eta Berako taldeak eskuratu zuen puntua.

## 2020ko ihoteetako lehiaketa irabazleak

Otsailean ospatu ziren Sakanako herrietan inauteriak, eta Guaixek, bigarren urtez, argazki lehiaketa antolatuta zuten. Argazkirik dibertigarrienak, politenak, irribarretsuenak eta abar bilatzen genituen. Bi sari egon dira: bozkatuena eta zozketa bidez aukeratutakoa.



### Bozketaren irabazlea

#### Begirada

Miren Arregi Olivenza

Errigora saski berdea eta Guaixe25 kit-a



### Zozketaren irabazlea

#### San Ferminen abestia!

Juan Carlos Irigoyen

Errigora saski beltza eta Guaixe25 kit-a





Kipchoge maratoilariaren marka gainditzea lortu duten korrikalari sakandarrak.

# "Egindakoa Kipchogeri iristea nahi dugu"

Eliud Kipchoge korrikalariak maratoiko distantzia, 42 kilometro, 1:59:40 segundotan egin zuen. Hamar korrikalari sakandarrek, aldiz, larunbatean marka gainditu zuten. Antton Zelaia proba bitxiaren antolatzailetako bat izan zen

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Maratoi bat bi ordutatik jaistea. Zein zen asmoa?

Kipchogek 1:59:40tik behera egin zuen, eta denbora hori gainditzea zen asmoa. Erakutsi nahi zuen gizakia kapaz dela horrelako abiadura batean maratoia korritzeko. Laguntzarekin egin zuen, zapatila bereziekin eta jendea

aurrean haizeak ez emateko... Denbora ez dago homologatuta, baina ondo atera zitzaion.

## 2 Eta nola sortu zitzaizuen marka hori gainditzeko ideia?

Mikel Berdudek, Iñaki Alvarok, Isidro Asurabarrenak, Raul Audikanak, Asier Estarriagak, Sergio Garcia de Eulatek, Juan Carlos Gomezek, Carlos Manerok,

Iban Sobredok eta nik parte hartu genuen. Korrika egitea asko gustatzen zaigu. Korrikalari honek hau egin zuenean txundituta gelditu ginen. Eta horri buruz egoten ginen hizketan. Kipchogek kilometroa bi minutu eta 40 segundotan egin zuen, hau da, 32 km orduko. Hori sekulako abiada da, oso azkar egin zuen. Bi ordu jarraian aritu zen.

Gu korrikan ibiltzen garenez, gizon honen ondoan zenbat denbora iraungo genukeen pentsatzen hasi ginen. Halako batean bati bururatu zitzaion proba bat egitea; 10 lagun elkartuta eta gure neurrira egin.

## 3 Nolakoa izan zen proba?

Urko Berdudek bizikletarekin abiadura markatzen zuen, eta 200 metroa erreleboak egiten genituen. 34 segundotan 200 metroak egin behar genituen, eta bakoitzak 21 errelebo egin genituen. Buelbaka hasi ginen eta hasieran bizikleta parean joaten ginen. Ahal genuela konturatu ginen eta aurreratu egin ginen. Oso azkar joan ginen. 10 edo 15 segundo jaitsi genuen marka.

## 4 Dena ongi kalkulatu zenuten.

Hori da. Oso ondo kalkulatu ta zegoen. Mugan ibili ginen. Askok esan zuten ez genuela beteko. Eta nik esaten nuen baietz, beste batzuek ezetz... Probaren erdian ikusi genuen aurreratu hasi ginela eta atera zen. Oso pozik.

## 5 Noiz hasi zineten proba prestatzen?

Kipchogek egin zuena ikusi genuenean. Urria aldera. Horri buruz hizketan hasi ginen. Bagaude bi edo hiru maratoiko distantzia asko gustatzen zaigunak eta idolo bat bezala da. Lau edo bost hilabete daramatzagu horri bueltak ematen.

## 6 Proba honetarako bereziki prestatu zarete?

Beti entrenatzen aritzen gara. Geunden hamarrak nahiko entrenatuta geunden eta lagunak gara. Ez gara oso urrutira joan jende bila. Gainera, bi lagun

Londresko maratoira joateko prestatzen ari gara. Baina ez dugu ezer berezirik egin proba hori egiteko. Entrenamendu normalak.

## 7 Beraz, maratoietan parte hartzea gustatzen zaizue?

Bai. Guztiei ez, baina hiruk edo lauk maratoiak egiten ditugu eta distantzia hori gustatzen zaigu.

## 8 Zer moduzko esperientzia izan zen? Espero zenuten?

Izugarrizko esperientzia izan zen. Buruari buelta asko emangenizkion zer pasatuko zen galdetzen, eta ikusten duzunean dena ondo atera dela, oso pozik gelditzen zara.

## 9 Errepikatuko duzue?

Lehendabiziko gauza izan zen: eta hurrengoan zer? Baina orain arnas pixka bat hartuko dugu eta gero ikusiko dugu. Errelebo mistoak egitea proposatzen zuten, beste distantzia bat egitea... Momentuz bideo bat atera behar dugu, eta gure helburua Kipchogengana iristea da, eta ea zerbait esaten digun. Hori lortu nahi dugu.

## 10 Kipchogek zapatila berezi batzuk eraman zituela aipatu duzu. Zuek zapatila horiek jantzi zenuzuten?

Nik ez. Nike-k maratoirako zapatila berezi batzuk atera ditu. Zolaren barruan lamina bat doa eta pixka bat bultzatu egiten zaitu. Laguntzen dutela esaten dute.

## 11 Horrek ez dio maratoiarri eta korrika egiteari xarma kentzen?

Niretako, bai. Dopin antzeko bat da. Frogak homologatu egin behar dituztela diote. Ez da tranpa egitea, baina laguntzen dute.

## BAZKIDE ZOZKETA

### MARTXOKO SARIAK:

**1. SARIA:**  
**EKAINBERRI KOBAZULOAK:** 2 SARRERA  
**ARTAZAKO KANPINA:** %10EKO DESKONTUA  
**LACTURALE:** ESNEKI LOTEA  
**GAZTEZULO:** 3 HILABETEZ DOAN

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
**DONOSTIAKO AQUARIUMA:** SARRERA BANA  
**ARTAZAKO KANPINA:** %10EKO DESKONTUA  
**LACTURALE:** ESNEKI LOTEA  
**GAZTEZULO:** 3 HILABETEZ DOAN





